

2023

1. hiruhilekoa

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA OGASUN
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA
Dirección de Economía y Planificación

EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

LABURPENA	3
EKONOMIAREN INGURUNEA	5
EAE-KO EKONOMIA	9
Ekoizpena eta enplegua	9
Barne eta kanpo eskaria	14
Prezioak, soldatak eta kostuak	21
Arlo publikoa	25
Arlo finantzarioa	27
Aurreikuspenak	34

Irudien aurkibidea

Munduko ekonomia. BPGa (I)	5
Munduko ekonomia. BPGa (II)	6
Enpleguaren bilakaera	12
Etxebizitzaren hipoteken bilakaera	32
2023ko eta 2024ko aurreikuspenak (I)	39
2023ko eta 2024ko aurreikuspenak (II)	40

Taulen aurkibidea

Eskaintzaren aldagaiak	9
Jardueraren adierazleak	10
Eskariaren aldagaiak	14
Kontsumo eta inbertsioaren adierazleak	15
Esportazioen helmuga	17
Inportazioen jatorria	20
Kontsumoko prezioen indizearen banaketa	21
EAEko kontsumoko prezioen indizea	23
Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak	24

Lan kostuak	25
Tributu itunduen bilakaera (urtarrila-abendua).....	26
Adierazle monetario eta finantzarioak (I)	28
Adierazle monetario eta finantzarioak (II)	30
Kreditu eta gordailuak.....	33
Ekonomia aurreikuspenak.....	34
Espainiako ekonomiarako aurreikuspen ekonomikoak (2023ko otsaila)	37
EAEko ekonomiarako aurreikuspenak hiruhilekoka (2023ko martxoa).....	38

LABURPENA

2022ko laugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomia %2,9 hazi zen urte arteko tasan. Emaidza horrek berretsi egiten du iazko lehen hiruhilekoan hasi zen moteltzeko prozesua, une horretan BPGaren hazkundera %5,8ra iritsi baitzen. Apaltzeko joera horren zati bat pandemiak ezarritako murrizketak ezabatzen joan ziren heinean gertatu zen errebotek azaltzen du. Prozesu horri esker, ezohiko aldakuntza tasa handiak erregistratu ziren. Baina Ukrainako gerraren ondorioek garatutako ekonomietara ekarri zuen ziurgabetasunak ere azaltzen du moteltzeko joera hori. Hala eta guztiz ere, EAEko urteko saldoa oso positiboa izan da, BPGaren batez besteko hazkundera %4,4 izan baita, Europako herrialde nagusietako zifren gainetik. (Europar Batasuna eta euroaren eremua %3,5 hazi ziren).

Eskaintzaren aldetik eginiko banakapenak adierazten du homogeneotasun handia egon zela EAEko ekonomiaren hiru sektore nagusien hazkundera laugarren hiruhilekoan. Hala, eraikuntzak atzean utzi zuen urtearen lehen erdian erakutsitako ahultasuna, eta %2,4ko urte arteko tasa lortu zuen joan den urtearen azken zatian, oraindik ere batez besteko hazkundera baino puntu erdi txikiagoa baita. Lehengaien garestitzeak eta jarduera moteldu zuten botila lepoak leundu egin dira hilabeteak igaro ahala, eta eraikuntzak eta obra zibilak gero eta dinamismo handiagoa erakusten dute.

Industria izan zen 2022ko hazkunderaren zutabeetako bat, urteko batez besteko %4,6ko tasa bati esker, ekonomiaren batez bestekoa baino pixka bat handiagoa izan baitzen. Sektore horrek apaltze nabarmena erakutsi zuen urtean zehar, eta laugarren hiruhilekoan urte arteko %2,5 tasa nabarmena jaso zuen, manufakturen atalean are handiagoa (%2,8) den tasa bat lortuz. Europan udaz geroztik bereziki bizi izan zen igurikimenean okertzeak sektorearen bultzada handia geldiarazi zuen, industria nazioarteko lehiari oso irekia baitago. Hala ere, eskaera berrien etorrerak, barnealdetik zein kanpoaldetik, ahalbidetu zuen industriak pandemian galdutako eremuaren zati bat berreskuratzea, haren balio erantsia oraindik 2019koa baino txikiagoa bada ere.

Zerbitzuek oso irudi ona eman zuten 2022an zehar, %4,7ko batez besteko hazkunde batekin, industrian lortutakoaren antzekoa baita, baina honek baino moteltze txikiagoarekin. Laugarren hiruhilekoan, aldakuntza tasa %3,2 izan zen oraindik. Sektorearen barruan nabarmentzekoa da merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen blokeak duen bizitasun handia (%6,5), pandemiaren murrizketek gehien kaltetutakoa izan baitzen, eta 2019an erregistratu zituen balioetara hurbildu da, baina iritsi gabe. Bestalde, sektore publikoari lotutako jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak) %1,9 egin zuten gora, aurreko bi hiruhilekoen gainetik. Azkenik, gainerako zerbitzuen hazkundera moteldu egin zen, %1,9raino.

Eskariaren ikuspegitik, nabarmentzekoa da kanpo arloak pisua galdu duela BPGaren hazkunderan. Izan ere, iazko lehen erdian, kanpo saldoaren ekarpena bi puntutik gorakoa izan zen, eta laugarren hiruhilekoan, berriz, ekarpen hori puntu erdia baino zertxobait handiagoa baino ez zen izan, eta zifra horrek iradokitzen du aldagai hori pandemiaren aurretik erakutsi ohi zuen neutraltasunera itzultzen ari dela. Alde batetik, ondasunen eta zerbitzuen esportazioak, balio errealetan, %4,9 hazi ziren laugarren hiruhilekoan, aurreko aldiaren ia erdia. Bestetik, inportazioak %4,7 gehitu ziren urte batetik bestera.

Barne eskariak hazkunde egonkorra erakutsi zuen 2022. urtearen zati handi batean, eta laugarren hiruhilekoan %2,5eko hazkundera izan zuen, aurreko bi hiruhilekoetatik oso hurbil. Azken kontsumoan egindako gastuak (%2,1) apenas aldatu zuen hazkunde erritmoa urtearen azken aldiari; izan ere, kontsumo pribatuaren moteltzea, inflazio handiak eragindako erosteko ahalmenaren galerak baldintzatuta, administrazio publikoen kontsumoaren bultzada berrituak konpentsatu zuen, bi hiruhilekotan tasa negatiboak izan ondoren. Bestalde, kapital eraketa gordinak aldakuntza tasa %2,9ra arte leundu zuen, ekipamendurako inbertsioaren (%3,6) eta gainerako inbertsioaren (%2,5) bultzada txikiagoaren ondorioz. Ekoizpen kostuen igoerak eta itxaropenen okertzea dira inbertsioaren dinamismoaren galera hori azaltzen duten arrazoiak, nahiz eta aldakuntza tasek nabarmenak izaten jarraitzen duten.

BPGaren hazkunderari esker, enpleguak beste gorakada bat izan zuen. Kontu ekonomikoek %1,9an estimatu dute 2022ko laugarren hiruhilekorako, eta %3,1ean urte horretako batez bestekorako. Horrela, 2022ko bigarren erdian, lanaldi osoko milioi bat lanposturen muga pixka bat gainditu zen, 2008ko erdialdean galdu zen langa baita hori. Beraz, hamalau urte behar izan dira Atzeraldi Handian galdutako enplegua berreskuratzeko. 2023ko lehen bi hilabeteetako Gizarte Segurantzako afiliazioko datuek adierazten dute enplegua %1etik gorako erritmoan hazten ari dela, moteltze leuneko prozesu batean.


Inflazioa da gaur egungo baldintzatzaile nagusietako bat, aldagai makroekonomikoetan (kontsumo pribatua, inbertsioa, moneta politika, etab.) duen eraginagatik. Urtearen hasieran, KPIak bere jaitsiera geldiarazi du, eta otsailean %5,8an kokatu zen, EBZk %2an uzteko duen helburutik oso urrun. Espero izatekoa da martxoan berriro beheranzko bideari ekingo diola, 2022ko hilabete berarekin alderatuta, iazko martxoan energia nabarmen garestitu zelako.

Datozen hiruhilekoei begira, EAEko ekonomiak 2022an izandako moteltzeari jarraipena emango diola aurreikusten da, baina bizkortzeko prozesu bati ekingo diola aurtengo bigarren erdian. 2023rako BPGa %1,5 igoko dela aurreikusten da, eta 2024an, berriz, %2,1era igoko dela. Enpleguaren arloan, aurreikuspenen arabera, lanaldi osoko lanpostuen kopurua %0,9 handituko da aipatu diren bi urteetan, eta langabezia-tasa %8,2ra jaitsiko da aurreko urtean, datorren urtean %8,0ra jaisteko.

EKONOMIAREN INGURUNEA

Ezohiko ziurgabetasuna eta kontrako asaldura ugarialdi berean gertatzea ezaugarri dituen testuinguru batean, inflazioaren eremuan bizi diren presio iraunkorrek eta, horren ondorioz, moneta politiken norabidea gogortu izanak ekonomia jarduera globalaren moteltzeko zantzu argiak eragin dituzte azken hilabeteetan. Hala berretsi dute iazko laugarren hiruhilekoari buruzko datu ekonomikoek, munduko jardueraren erritmoa leuntzea espero dela berresten baitute.

Munduko ekonomia. BPGa (I) Urte arteko aldakuntza tasak




Iturria: ELGA.

Bizitasun gutxiago egon arren, ekonomia nagusi guztiek eremu positiboan irautea lortu zuten. Hornidura kate globaletako botila lepoak normalizatzen jarraitu zuten, nahiz eta Txinan covid bidezko kutsatzeen gorakadarekin lotutako disrupzioak ugariak izan, eta litekeena da inflazio presioek jadanik goia jo izana. Izan ere, lehengai metalikoak eta elikagaiak, gehienbat, udazkenetik merkatzeko joera erakutsi dute, baita petrolioaren salneurria ere. Gasak ere beherako norabide leunari ekin zion udazkenean, baina abenduan eta urtarrilean eskaria handitu izanak erregai hori berriz garestitzea ekarri du, eta berriro ere agerian utzi du prezioak jasaten duen hegakortasun handia. Hala eta guztiz ere, azpiko inflazioak tasa oso altuetan jarraitzen du munduko ekonomia nagusietan, eta adierazle horren apaltzeko seinaleak oso hasiberriak dira oraindik.

Asian, Txina %2,9 baino ez zen hazi 2022ko azken hiruhilekoan, konfinamenduek eta zero covid politika zorrotzaren ondoriozko disrupzioek markatutako urte batean. Txinako gobernuak amaiera eman zion abenduan politika horri, protesta sozialen olde baten ondoren. Urrun geratzen dira 2000ko lehen hamarkadako Asiako bultzagile nagusiaren hipergarapenaren bi digituko tasak, 2021ean lortutako %8,1eko hazkundera, eta urrun geratzen da, halaber, Txinako gobernuak 2022rako martxoan ezarritako %5,5eko helburu ez hain handinahikoa, %3,0rekin konformatu behar izan baitu. Hala ere, murrizketen amaierari esker, jarduera ekonomikoaren gorakada espero da 2023ko lehen hilabeteetan. Oraingoan, PMI konposatuaren adierazleak teoria hori indartzen du; izan ere, urtarrilean hedapen eremuan kokatu zen (51,1), eta otsailean nabarmen egin zuen gora, +3,1 puntu, 54,2raino, manufacturen ekoizpenaren eta zerbitzuen sektorearen hobekuntzak bultzatuta.

Herrialde aurreratuen artean, hazkunde tasak ahul iraun zuen iazko laugarren hiruhilekoan (%1,1). Oro har, 2022ko azken laurdenean moteltzeko joera orokorra izan zen nagusi, eta egoera heterogeneoa hauteman zen ekonomia handien artean. Horiek horrela, Suedia, Lituania eta Estonia uzkurto egin ziren (-%0,1, -%0,4 eta -%4,4, hurrenez hurren), hazkunde erritmoa moteldu egin zen %0,5era Frantzian eta %0,9ra, berriz, Alemanian eta AEBetan, eta Herbehereak eta Portugal %3,0tik gora hazi ziren. Bizitasun motelago horrek, halaber, lehengaien prezioen bilakaerak eragin dituen presio inflazionistak ahultzea ekarri du azken hilabeteetan. Hala, urtarrilean ELGaren inflazioa %9,2ra moteldu zen, 2022ko apiriletik izan duen mailarik txikienera, eta azpiko inflazioa, berriz, %7,2ra jaitsi zen.

Munduko ekonomia. BPGa (II)
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eurostat eta BEA.

Zehatzago adierazita, AEBak %0,9 hazi ziren laugarren hiruhilekoan, hau da, hirugarren hiruhilekoan baino puntu bat gutxiago. Jarduera ekonomikoaren dezelerazioa, aurreko hiruhilekoekin alderatuta, barne eskariaren ahuleziaren eta kanpo sektorearen uzkurduraren ondorio izan zen, esportazioak inportazioak baino gehiago murriztu zirelako. Hain zuzen ere, kontsumo pribatuak erritmoa galdu zuen berriro, erosketa saskiaren garestitzeak eraginda, eta inbertsio pribatuak, berriz, Fed-en interes tasen igoeren eragina pairatu baitzuen, behera egin zuen. Tonu galera hori gauzatu bazen ere, ekonomia estatubatuarrarentzako aurreikuspenak ez dira negatiboak. Alde batetik, moteltzeko seinaleak ez dira hain agerikoak oso sendoa den lan merkatu batean, langabezia tasa maila historikoki txikian (%3,4 urtarrilean) kokatuta baitago, eta enplegua sortzeko erritmo sendoa izan baitu. Halaber, otsaileko PMI indizea, zazpi hilabetez uzkurdura eremuan egon ondoren, hedapen eremura itzuli zen (50,1), zerbitzuen sektorearen jarduera hobeari esker. Inflazioa, azkenik, %6,0koa izan zen otsailean, ekaineko %9,1etik urrun. Azpiko inflazioak ere, elikagai freskoak eta energia alde batera uzten baititu, %5,5era egin zuen behera.

Bestalde, Japoniako BPGa %0,6 handitu zen 2022ko azken hiru hilabeteetan, espero zena baino erritmo motelagoa, kontsumo pribatuaren apaltze handiak eta inbertsioaren atonik baldintzatuta, bigarren hiruhilekoz jarraian %0,7ko hazkunde tasa txikian gelditu baitzen. Izan ere, inbertsio publikoa eta bizitegietan eginiko inbertsio pribatua tasa negatiboetan kokatu ziren 2022 osoan, eta soilik bizitegiz kanpoko inbertsio pribatuak sostengatu zuen agregatu horren hazkundera. Orobat, kanpo sektoreak, BPGaren hazkundera lagundu beharrean, zenbait hamarren kendu zizkion jarduerari, batez ere esportazioen jaitsieragatik, inportazioen garestitzearen aurrean. Horren guztiaren ondorioz, Japoniako ekonomiak oraindik ezin izan ditu bere covid aurreko jarduera mailak berreskuratu, eta bertako hazkundera gotortzeko oinarri sendorik gabe jarraitzen du. Inflazioak, azkenik, aliatua izan da orain dela gutxi arte, maila txikia zuelako, baina %4,0an itxi zuen 2022a, eta urtarrilean %4,4ra igo zen, 1981eko irailetik izan duen tasarik handienera.

Europar Batasunean, inflazioak eta Ukrainako gerrak utzitako faktura batez ere familien kontsumoaren gainbeheran eta enpresen inbertsioaren atonian islatu da. 2022ko laugarren hiruhilekora arte, kontsumo pribatuaren dinamismoa zerbitzuen kontsumoan oinarritu zen batez ere, eta horrek gora egin zuen ekonomia berriz ireki zenean; ondasunen kontsumoak, berriz, bere ahuleziari eutsi zion. Iazko azken hilabeteetan, inflazio handiak eta finantzaketa baldintza murriztaileagoek zerbitzuen gastua ere geldiarazi zuten, eta, beraz, kontsumo pribatuak lau puntuko ekarpena egin zuen 2022ko lehen hiruhilekoan, eta lau hamarrenekoa soilik izan zen azken hiruhilekoan. Ohar positiboa kanpoko sektorearen eskutik etorri zen; izan ere, munduko eskaria ahuldu arren, 2022 osoan lehen aldiz ez zuen hazkundera hamarren asko drainatu. Zortzi hamarreneko ekarpena egin zion jarduera ekonomikoari, barne eskariaren berdinak. Horren guztiaren ondorioz, kontinente zaharreko BPGa %1,7 hazi zen 2022ko laugarren hiruhilekoan.

Herrialdeka, gerratik hurbilen dauden herrialdeak izan ziren kaltetuenak. Zehatzago adierazita, BPGak behera egin zuen Estonian (-%4,4), Lituanian (-%0,4) eta Suedian (-%0,1), eta Finlandiak hazkunde hutsala (%0,0) izan zuen. Hala ere, kontsumo pribatuaren jaitsiera ez zen herrialde horietara mugatu. Frantziak ere ikusi zuen kontsumo pribatua murriztu egiten zela. Izan ere, inbertsioaren bultzadari esker lortu zuen tasa positibo eustea (%0,5). Alemaniak ez zuen bere kontsumo deprimitua ikusi, baina bere bilakaera ez zen askoz hobea izan. Inbertsioa murriztu egin zen eta esportazioak nabarmen moteldu ziren. Horrek Alemaniako BPGaren hazkundera %0,9ra mugatu zuen. Espainiako ekonomia, bestalde, arazoak espero baino hobeto saihesteko gai izan zen, eta %2,6 hazi zen.

2023ko lehen hiruhilekoari begira, aurreikusten da eskaria sustatuko dutela lan merkatu gehienek erakusten duten sendotasunak, azarotik familien eta enpresen igurikimenez hobera egin izanak eta krisi energetikoaren aurkako laguntza fiskalek; aldiz, eskaintza arintzen ari da, botila lepoak normalizatu direlako eta energiaren prezioak gutxiago garestitu direlako. Horren guztiaren ondorioz, duela hilabete batzuk espero zena baino moteltze ekonomiko txikiagoa aurreikusten da orain, eta, ondorioz, urte honetarako jarduera aurreikuspenen goranzko berrikuspen orokorra egiten ari da.

Europar Batasunetik kanpo, Erresuma Batuan, moneta eta zerga politikak aldi berean gogortu izanak familien errenta erreala murriztu zuen eta, horrekin batera, baita kontsumo pribatua ere, eta enpresak inbertsioa murriztera bultzatu zituen. Horren guztiaren ondorioz, herrialde hartako urte arteko BPGak %0,4ra mugatu zuen hazkundera, 2019ko laugarren hiruhilekoan, pandemiaren aurreko azken hiruhileko osoan, ikusitako mailaren %0,8 azpitik oraindik. Hiruhileko arteko tasetan, 2022ko hirugarren hiruhilekoan izandako uzkurduraren ondoren, iazko azken hiruhilekoan %0,0ko aldakuntza tasa izan zuen, eta datu horri esker, atzeraldi teknikoari izkin egin ahal izan zion. Aurreikuspenak egiten dituzten erakunde nagusien arabera, atzeraldi hori saihestezina izango da 2023an.

Garapen bidean dauden herrialdeen artean, Amerika Latinoan, jarduera ekonomikoa duela hilabete batzuk aurreikusten zena baino dinamikoagoa izan zen, baina, ohikoa den bezala, bilakaera oso heterogeneoa erakutsi zuen eskualdeko herrialdeen artean. 2022ko laugarren hiruhilekoan BPGaren hazkunde tasak Brasilen lortutako %1,9aren eta Venezuelen eskuratutako bi zenbakiko hazkunderaren artean kokatu ziren. Azken emaitza hori ustekabekoa izan da, zazpi urtez etengabe uzkurdu ondoren. Jardueraren erresilientzia erlatibo hori gorabehera, moteltzeko bide argia hauteman zen. Zehazki, eskualdeko ekonomia nagusien batez besteko hazkunde-tasa %0,5etik beherakoa izan zen 2022ko bigarren erdian, urte horretako lehen sei hilekoko %1,1 baino nabarmen txikiagoa.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

2022ko laugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomia %2,9 hazi zen urte arteko tasan, hots, aurreko hiruhilekoan baino ia puntu bat gutxiago, eta urte osoan zehar bizitako moteltzeko joera luzatu egin zen. Hori horrela izanda, 2022 osoko BPGaren hazkundera %4,4ra iritsi zen, eta tasa horrek zertxobait hobetu du irailean egindako aurreikuspena. Mailari dagokionez, 2022an lortutako BPGa 2019an izandako ia maila berean kokatu da. Beraz, EAEko ekonomiak bi urte baino ez ditu behar izan covid-19aren pandemiaren hedapenak ekarri zuen beherakada handitik suspertzeko. Halaber, gaixotasun horretaz gain, bazeuden urtea baldintzatu zuten beste faktore batzuk, hala nola Ukrainako gerra, prezioen igoera handia, krisi energetikoa, moneta politikaren zeinu aldaketa eta ziurgabetasunaren igoera orokortua. Elementu horiek guztiek inguruko herrialdeei ere eragin zieten, aldakuntza tasa esanguratsuak izan baitzituzten, nahiz eta tasa horiek moteldu egin ziren. Zehazki, Europar Batasuna %3,5 hazi zen, Alemania %1,8, Frantzia %2,6, Italia %3,7 eta Espainia %5,5.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2022			
			I	II	III	IV
BPG erreala	5,9	4,4	5,8	5,0	3,8	2,9
Nekazaritza eta arrantza	21,9	0,8	-1,7	-3,4	7,8	0,7
Industria eta energia	6,1	4,6	6,5	5,9	3,6	2,5
- Manufakturen industria	5,6	4,3	5,9	5,7	2,6	2,8
Eraikuntza	4,5	2,0	1,9	1,3	2,3	2,4
Zerbitzuak	5,8	4,7	6,2	5,4	4,2	3,2
- Merkat., ostalaritza eta garraioa	11,8	10,7	13,1	13,8	9,8	6,5
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	3,1	1,8	3,0	1,1	1,0	1,9
- Gainontzeko zerbitzuak	4,0	2,8	3,9	2,7	2,5	1,9
Balio erantsi gordina	5,9	4,5	6,0	5,2	4,0	3,0
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,1	3,3	3,9	2,9	2,6	2,8

Iturria: Eustat.

Eskaintzaren azterketak EAEko ekonomiaren bi sektore nagusien bilakaeraren paralelismoa nabarmentzen du, urte osoan balio erantsia %4,6 handitu zuen industria batekin eta %4,7 hazi ziren zerbitzuekin. Antzekotasun horrek pentsarazten du ekonomiaren hazkundera zutabe sendoetan oinarritzen dela, jarduera bakar baten mende egon gabe. Bi kasuetan, hazkunde erritmoak moteltzen joan ziren hiruhilekoak igaro ahala, eta indarra galtzen ari zen berriro irekitzeko bultzada, pandemiaren murrizketak amaitu ondoren. Zehazki, industriak %2,5eko hazkunde esanguratsua izan zuen 2022ko laugarren hiruhilekoan, eta manufakturen atalean bultzada handiagoa izan zuen (%2,8).

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2022			
			I	II	III	IV
Industria						
Industria produkzioaren indizea	10,5	5,7	8,0	7,3	4,2	3,1
Negozio zifren indizea	18,2	25,6	21,5	38,7	22,9	19,6
Industria giroaren indizea	-10,2	1,1	6,5	4,7	0,4	-7,2
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,5	1,2	1,5	1,1	0,8	1,2
Eraikuntza						
Eraikuntzaren koiuntura indizea	7,8	11,1	7,5	8,8	11,6	16,1
Etxebizitza berriak eraikit. oniritziak	39,6	-13,7	0,2	-34,9	3,1	-22,2
Etxebizitzaren salerosketak	21,3	9,8	16,6	6,0	10,3	5,8
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,1	1,7	1,9	1,7	1,5	1,6
Zerbitzuak						
Hegazkinen bidezko bidaiariak	57,5	100,7	382,5	272,1	53,2	41,4
Hoteletan igarotako gaualdiak	73,4	54,2	176,5	146,5	20,2	20,7
Negozio zifren indizea	15,4	16,2	18,1	20,5	14,2	12,6
Zerbitzuen koiuntura indizea	6,0	3,0	4,8	5,2	-0,1	2,1
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,2	2,4	2,9	2,9	2,0	1,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerio, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantzak eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industria jardueraren dinamismoaren ahultzea sektoreko hileko produkzioaren datuetan ere nabari da; izan ere, datu horiek murriztu egin ziren hilabeteak igaro ahala, nahiz eta oraindik ere urtearen amaieran %3ko aldakuntza tasak erregistratu ziren. Aipatu behar da erritmoaren leuntze horren eragile nagusia energiaren ekoizpena izan zela, iazko lehen hiru hiruhilekoetan %10etik gorako aldakuntza tasak izatetik azken hiruhilekoan gelditzera (%0,1) igaro baitzen. Ekipamendurako ondasunen ekoizpenak ere moteldu egin zuen bere aldakuntza tasa urtearen

erdian, baina %5,2ra suspertu zen azken hiru hilabeteetan. Bitarteko ondasunen kasuan, ez zen alde handirik egon lehen hiruhilekoko tasaren (%2,3) eta laugarren hiruhilekoaren (%2,2) artean. Azkenik, kontsumoko ondasunek %3aren inguruko aldakuntza tasak izan zituzten iazko azken hiru hiruhilekoetan, bere ekoizpenean egonkortasuneko irudia emanaz.

Gerrak eta kostuen igoera handiak eragindako ziurgabetasunak ez zuen eragotzi 2022a industria sektorean igurikimen onenak zituen urteetako bat izatea, industria giroaren indizeak emandako datuen arabera. Hala eta guztiz ere, lehen hiru hiruhilekoen baikortasunaren ondoren, iazko urtearen azken zatia ez zen hain ona izan, eta aurtengo lehen bi hilabeteetan ere datu ez hain on horiek jarraipena izan dute. Eskaera zorroari eta ekoizpenaren joerari buruzko iritziak nabarmen okertu ziren abendutik hona. Aitzitik, enpleguari buruzko igurikimenez ez zuten aldaketarik izan, eta maila oso altuetan jarraitzen dute.

Eraikuntzak bi sektore nagusien oso bestelako irudia eskaini zuen, urtean zehar behetik gora egin zuelako. Izan ere, urtearen hasieran lehengaien eta energiaren prezioek izan zuten garestitze handiak sektorearen jarduera oztopatu zuen, baina botila lepoak konpondu ahala, jarduera suspertu egin zen, laugarren hiruhilekoan %2,4ko urte arteko tasa erregistratu arte, urte osoko tasa altuena eta aldi horretan industriarako deskribatutakoaren antzekoa. Eraikuntzaren koiuntura indizeak iradokitzen du bizitasun hori obra zibilak eta eraikuntzak partekatu zutela, biek izan baitzituzten aldakuntza tasarik handienak azken hilabeteetan, %10 baino askoz gehiago.

Zerbitzuetan bizi zen erritmoaren apaltzeko joera ez zen hain bizia izan, baina esanguratsua izan zen sektore horretan ere. Iazko laugarren hiruhilekoan, bere balio erantsia %3,2 hazi zen, aipatutako bi sektoreak baino hamarren batzuk gehiago, nahiz eta urteko lehen hiruhilekoan erakutsitako balioaren ia erdia izan. Zerbitzuak dira pandemiaren ondoren jarduera erabat berreskuratu duen sektore bakarra.


Merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldearen bilakaerak gainerako zerbitzu jarduerena baino dinamikoagoa izaten jarraitzen du, lehen hiruhilekoetako tasa apartak biziki apaldu diren arren. Laugarren hiruhilekoan, aldakuntza tasa %6,5koa izan zen, lehen hiruhilekoko tasa baino zortzi puntu txikiagoa. Gehikuntza erritmo handiak izan arren, atal hau ez da pandemiaren aurreko jarduera mailara itzuli. Bestalde, sektore publikoarekin lotura handiena duten jardueren erritmoa %1,9raino igo zen, eta tasa hori gainerako zerbitzuek erregistratutakoa ere izan zen, nahiz eta azken kasu horretan beste sektore batzuetan aipatu den moteltzeko joera bera nabari den.

2023. urtearen hasieran, turismoarekin lotura duten jarduerak aparteko dinamismoa erakutsi dute, eta adar horren aldakuntza tasak oso handiak izan dira. Hain zuzen ere, 2022 osoan hotel establezimenduetako gaualdien kopuruak errekorra eskuratu ondoren, aurtengo urtarrilean aldagai horrek %48,6ko urte arteko hazkundea izan zuen. Beste aldetik, EAEko aireportuetatik bidaiatu zuten pertsonen kopurua %86,7 handitu zen 2022ko urtarrileko kopuruarekin alderatuta, eta aurtengo urtarrila izan da serie historiko osoan hileko horretan desplazamendu gehien jaso dituen.


BPGaren bultzadaren apaltzea ez da erabat islatu enpleguaren sorreran, eta azken honek zifra oso aipagarriak erregistratu zituen berriro. Izan ere, BPGak bederatzi hamarreneko moderazioa izan zuen, baina lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopuruak hamarren bat baino ez zuen murriztu aurreko hiruhilekoko erritmoa, eta %1,9 nabarmenean kokatu zen. Horri esker, EAEko ekonomiako milioi bat lanpostuen kopurua sendotu egin da, eta 2008an lortu zen gehieneko kopurura hurbiltzen ari da. Aipatutako aldakuntza tasa horren ondorioz, 19.000 enplegu inguru igo dira urtebetean. Enpleguaren sorrera oso banatua egon zen hiru sektore nagusien artean, baina protagonismo berezia izan zuten zerbitzuek, guztira %2,3 igo baitziren (16.000 lanpostu inguru). Bestalde, industriak (%0,9) ia 2.000 enplegu sortu zituen eta eraikuntzak (%1,5) gainerako 1.000 enpleguak.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza.

BJAk argitaratutako datuek aurreko paragrafoetan aipatutako norabide berean seinالاتzen dute, eta, beraz, biztanleriari buruzko inkestaren arabera, laugarren hiruhilekoan enpleguaren

hazkundera %1,8koa izan zen, lanpostuen tasatik gertu. Inkesta honek aukera ematen du enpleguaren bilakaera sexuaren arabera bereizteko eta bi kasuetan hazkunde erritmoak antzekoak izan zirela egiaztatzeko. Zehazki, enplegua duten emakumeak %1,9 gehitu ziren aurreko urtearen aldean, eta gizonak, berriz, %1,7. Aipatutako tasek %69,8an uzten dute guztizko enplegu tasa, aurreko urteko tasa baino puntu bat baino zertxobait gehiago, %72,9ko eta %66,7ko balioekin, hurrenez hurren, gizonentzat eta emakumeentzat.

Bi sexuen arteko beste diferentzia aipagarri bat lanbide egoeraren araberrako sailkapenak ematen duen emaitza da. Kuantitatiboki, sexu bateko eta besteko soldatapekoen kopurua antzekoa da, talde bakoitzean 394.000 pertsona inguru baitaude 2022ko batez bestekoan, baina emakumeak gehiago kontzentratzen dira sektore publikoan (emakumeen kopurua gizonena baino bi aldiz handiagoa da), eta sektore pribatuan, berriz, gizonen kopurua askoz handiagoa da. Orobat, langile autonomoen taldean, enplegatzaileenean eta kooperatibistenean ere gizon gehiago daude emakumeak baino, aurreko paragrafoan aipatutako sexu bateko eta besteko pertsona landunen guztizkoan dagoen aldea markatzen dutenak.

2022an zehar bizi den enplegu sorreraren moteltzeak jarraipena izan du 2023ko lehen bi hilabeteetan, Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuen arabera. Izan ere, iazko laugarren hiruhilekoan izandako %1,6ko hazkundearen ondoren, lehenengo bi hilabeteetan %1,2ko aldakuntza tasa jaso da. Deigarriak dira, gehikuntzaren sendotasunagatik, urte arteko hazkunde handiak jarduera artistikoetan eta aisialdikoetan (%6,6), informazio eta komunikazioetan (%5,9), ostalaritzan (%3,7) eta garraioetan (%3,1). Aitzitik, afiliazioak behera egin du osasun arloko jardueretan (-%0,6), merkataritzan (-%0,3) eta zerbitzu osagarrietan (-%1,0).

Enplegu sorrerak urtean zehar langabezia tasa puntu bat eta erdi murrizteko balio izan du, bai urteko batez bestekoa aztertuz gero (%10,0tik %8,5era), bai azken bi urteetako laugarren hiruhilekoak alderatuz gero (%9,9tik %8,4ra). Sexuaren arabera, gizonen langabezia-tasa %7,8koa izan zen 2022ko laugarren hiruhilekoan, eta emakumeena, berriz, %9,1koa. Joan den urtearen amaieran langabezian zeuden 88.500 pertsonetatik 42.200 gizonak ziren eta gainontzeko 46.300 emakumeak.

Laugarren hiruhilekoko BPGaren hazkundera (%2,9) eta enpleguarenak (%1,9) iradokitzen dute aldi horretako produktibitate irabazia %1,0 ingurukoa izan zela, aurreko hiruhilekoetako baino txikiagoa baina batez besteko historikotik (%0,9) oso hurbil. Sektoreka, industriak lortutako irabazia nabarmentzen da (%1,6), eraginkortasunean hazkunde handienak lortu ohi dituen jarduera baita. Nabarmentzekoa da eraikuntzan eta zerbitzuetan izandako irabazia, bi kasuetan %0,9koa, hazkunde historikoetan baino handiagoa baita bi kasuetan. Azkenik, lehen sektorearen eraginkortasuna %2,3 hobetu zen.

Barne eta kanpo eskaria

2022ko laugarren hiruhilekoan, eskari bakoitzak EAEko BPGaren hazkunderari egindako ekarpena puntu erdi inguru murriztu zen. Kanpoko eskariaren kasuan, ohiko portaera ereduetera pixkanaka itzultzen ari dela ikusten da, horietan hazkunderari egiten dioten ekarpena neutroa izaten baita. Hala eta guztiz ere, laugarren hiruhilekoan oraindik sei hamarren inguruko ekarpena egin zuen. Esportazioek eta inportazioek aparteko hazkunde erritmoak moteldu zituzten, eta balio apalagoetan kokatu ziren (%4,9 eta %4,7, hurrenez hurren), balio errealetan. Bestalde, barne eskariak %2,3 egin zuen gora urte batetik bestera, aurreko balioetan baino hamarren batzuk gutxiago.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2022			
			I	II	III	IV
BPG erreala	5,9	4,4	5,8	5,0	3,8	2,9
Gastua azken kontsumoan	5,2	2,2	2,9	1,8	2,0	2,1
- Familien gastua kontsumoan	5,6	3,0	3,5	3,2	2,7	2,3
- Adminis. gastua kontsumoan	3,9	-0,4	0,7	-2,9	-0,4	1,2
Kapital eraketa gordina	6,0	4,4	4,7	4,8	5,1	2,9
- Ekipamendu ondasunak	10,9	6,9	8,6	8,4	7,3	3,6
- Gainontzeko inbertsioa	3,1	2,7	2,2	2,4	3,7	2,5
Barne eskaria	5,4	2,7	3,3	2,5	2,7	2,3
Esportazioak	12,7	10,2	13,5	13,7	9,2	4,9
Inportazioak	11,6	7,5	10,6	8,8	6,0	4,7

Iturria: Eustat.

Laugarren hiruhilekoko barne eskariaren moteltzearen jatorria kapital eraketa gordina izan zen, zeren eta azken kontsumoak aurreko bi aldietakoaren oso antzeko aldakuntza tasa erakutsi baitzuen. Zehazki, urte arteko tasa %2,1 izan zen, hirugarren hiruhilekoko baino hamarren bat handiagoa eta bigarrenekoa baino hiru hamarren handiagoa. Beraz, agregatu makroekonomiko horretan egonkortasun esanguratsua egon da urtean zehar. Hala eta guztiz ere, bi osagaietan badira aldaketa garrantzitsuak. Zehazkiago adierazita, administrazio publikoen kontsumoak atzera utzi zituen iazko erdialdeko hiruhilekoetan izandako bi jaitsierak, eta urte arteko %1,2ko hazkundera lortu zuen laugarren hiruhilekoan. Igoera hori gorabehera, urteko batez besteko tasa

-%0,4koa izan zen, eta beherakada hori aurreko urtean pandemiari aurre egiteko egin zen ahaleginaren argitan ulertu behar da.

Beste aldetik, familien kontsumoak bere hazkunde tasa moteltzeko prozesuarekin jarraitu zuen, eta 2022ko azken hiruhilekoan %2,3ko urte arteko tasa eskuratu zuen, aurreko hiruhilekoan jasotakoa baino lau hamarren gutxiago. Hainbat dira kontsumo pribatuaren bultzadaren moderazio hori azaltzen duten arrazoiak. Alde batetik, pandemian geroratutako eskaria ase egin da neurri handi batean, eta, beraz, aurreko hiruhilekoetan eman zuen bultzada gehigarria desagertzen ari da. Bestalde, adierazi bezala, enpleguaren hazkundeak intentsitatea galdu du hiruhilekoak igaro ahala. Azkenik, kontsumoko prezioen igoera handiak familien erosteko ahalmena murriztu du.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2022			
			I	II	III	IV
Kontsumoa						
Azalera eta kate handietako salmentak	0,2	-1,4	-1,1	-1,1	-0,9	-2,4
Txikizkako merkataritza indizea	3,5	2,9	5,0	5,3	1,4	0,3
Kontsumo ondasunen ekoizpena	12,0	4,5	8,8	3,2	3,2	3,1
Kontsumo ondasunen inportazioa	20,0	17,6	11,0	48,3	16,1	1,1
Turismoen matrikulazioa	-19,7	-8,8	-14,0	-9,8	-11,1	-0,5
Inbertsioa						
Ekipo ondasunen ekoizpena	13,3	9,3	15,0	13,0	4,1	5,2
Ekipo ondasunen inportazioa	21,1	21,3	19,6	23,5	26,8	16,2
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	7,0	-13,5	-22,6	-23,5	-21,3	22,8
Etxebizitza berriak eraikitzeko oniritziak	39,6	-13,7	0,2	-34,9	3,1	-22,2
Lizitazio ofiziala	63,2	40,7	43,9	-19,7	108,9	69,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Ondorioz, kapital eraketa gordina da barne eskariak izan duen apaltzearen erantzule nagusia. Zehatz-mehatz adierazita, agregatu hori iazko lehen hiru hiruhilekoetan %5aren inguruan haztetik laugarren hiruhilekoan %2,9ko aldakuntza tasa jasotzera igaro zen. Igurikimenez okerrera egin dute, bai barruan, bai atzerrian, eta hori izan da inbertitzeko erabakietan gertatu den balaztaren arrazoietakoa bat. Aldagaiaren bi osagaiak partekatzen dute bultzada motelago hori. Alde batetik, ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioaren hazkunde erritmoa

erdira jaitsi zen, %3,6ra iritsi arte. Aldi berean, gainerako inbertsioa, eraikuntzan egindakoa barne hartzen baita, %2,5 handitu zen eta aurreko hiruhilekoetan bizitako bizkortzea geldiarazi zuen.

Ekonomiak erakutsi zuen moteltzeko joera ez zen EAEn bakarrik gertatu zen zerbait, inguruko ekonomietan ere nabaria izan zelako. Kanpoko eskari txikiagoak azaltzen du laugarren hiruhilekoko esportazioen apaltzea eta kanpo saldoak EAeko BPGaren hazkundeari egin zion ekarpen txikiagoa. Zehazkiago azalduta, ekarpen hori 2,4 puntukoa izan zen 2022ko lehen erdian, 1,1 puntukoa hirugarren hiruhilekoan eta, aitzitik, 0,6 puntukoa bakarrik azken hiruhilekoan. Pixkanaka-pixkanaka, aldagai horrek azken urteetan izan duen neutraltasuna berreskuratzen ari da.

Zehatzago, ondasun eta zerbitzuen esportazioak kanpora (atzerrira eta Estatuko gainerako erkidegoetara), termino konstanteetan, %4,9 gehitu ziren laugarren hiruhilekoan, aurreko aldiari lortutako zifraren ia erdia, baina ekonomiaren batez besteko hazkundera baino bi puntu gehiago. Bestalde, inportazioak %4,7 handitu ziren, hori ere moteltzeko prozesu argian. Unean uneko prezioetan, urtea 60.000 milioi eurotik gorako esportazio eta inportazio kopuruekin amaitu zen bi kasuetan, aurreko urteetan lortutako kantitateen oso gainetik. Iazko laugarren hiruhilekoan, aldakuntza tasak %16,5 izan ziren esportazioetan eta %17,1, berriz, inportazioetan, oraindik ere oso tasa esanguratsuak baitira, baina apaltzeko norabide argia hartu dute. Hazkunde errealean eta nominalen arteko aldeak iradokitzen du prezioak berriro ere indartsu igo zirela hiruhileko horretan.

Laugarren hiruhilekoan kanpora saldu ziren 15.784 milioi euroen erdia baino gehixeago atzerrira bideratutako ondasunak izan ziren. Zehazki, beste herrialde batzuetara bidalitako ondasunen esportazioek 8.299 milioi euroko balioa izan zuten, serie historikoko bigarren zifra handiena, iazko bigarren hiruhilekoko salbuespenezko datuaren ondoren (9.140 milioi euro). Urte arteko aldakuntza tasa %19,0 izan zen, aurreko hiruhilekoetakoa baino pixka bat txikiagoa, baina oraindik ere oso handia dena. Tonatan, urte arteko hazkundera %16,3 izan zen, baina ondasun ez-energetikoen salmenta aurreko urtekoaren antzekoa izan zen.

Erregai mineralen salmenta 722 milioi eurora iritsi zen iazko laugarren hiruhilekoan, hots, aurreko urtekoa baino %88,6 handiagoa eta azken urteetako handienetakoa. Halaber, produktu horien esportazioaren kopurua 1.162 milioi kilokoa izan zen, aurreko urtekoa baino %69,6 handiagoa, eta hori ere azken aldietako kopururik handienetakoa izan da. Balioari eta tonei dagokienez, begi bistakoa da EAeko produktu energetikoen eskaria nabarmen suspertu dela atzerrian.

Produktu ez-energetikoen balio esportatua 7.577 milioi eurokoa izan zen, 2021eko laugarren hiruhilekoan baino %15,0 handiagoa. Partida handien artean, nabarmentzekoa da makinek eta aparatuek lortutako igoera nabarmena, %16,9ko igoera lortu baitzuten. Bestalde, metal arruntek eta beren manufakturek %8,2ko aldakuntza tasa izan zuten, aurreko balioek baino nabarmen txikiagoa. Beste ondasun-multzo handian, garraio materialean, %9,0 hazi zen salmenten balioa. Adierazi den bezala, prezioak eragin nabarmena izan zuen emaitza horietan, saldutako kopuruak %1,6 baino ez baitziren igo.

Beste hiruhileko batez, EAEko esportazio gehienak herrialde garatuetara bidali ziren, guztizkoaren %84,6 bereganatzen baitute jada. Portzentaje hori aurreko hiruhilekoen antzekoa da, baina goranzko joera hautematen da. Herrialdeen multzo horri egindako salmentak %19,2 gehitu ziren, batez bestekoaren gainera, eta garapen bidean dauden herrialdeetara bidalitakoak, berriz, %17,8.

ESPORTAZIOEN HELMUGA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2021	2022	2022				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	23,0	26,8	21,7	43,0	23,8	19,0	8.299.054
ELGA	23,9	27,1	19,4	44,0	26,1	19,2	7.023.410
Eurogunea	25,9	27,3	23,4	43,9	24,6	18,0	4.536.530
Alemania	13,4	22,2	7,8	41,7	20,6	19,9	1.231.253
Frantzia	27,4	20,3	23,5	38,0	11,7	9,2	1.230.703
Italia	26,5	29,8	39,0	48,7	15,7	17,4	445.362
Erresuma Batua	26,2	17,0	-3,5	52,5	7,1	14,7	487.765
AEB	16,8	41,9	27,2	57,6	34,7	45,7	701.377
ELGAtik kanpokoak	18,2	25,2	34,7	37,8	12,1	17,8	1.275.644

Iturria: Eustat.

Euroaren eremua da, oraindik ere, EAEko esportazioen helmuga nagusia, eta %18,0 igo ziren salmentak laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoekiko moteltze argian. Garraio materiala eta metal arruntak dira nagusiki eremu horretara bideratzen diren bi produktu multzoak eta bien artean salmenta guztien erdia biltzen dute. Bi atalek portaera positiboa izan zuten, baina batez bestekoa baino txikiagoa. Aitzitik, makinek eta aparatuek (%20,8) eta produktu mineralek (%68,2) portaera oso hedakorra erakutsi zuten.

Alemaniak eta Frantziak berdindu egin zuten berriro EAEko esportazioen jomuga nagusia izateko lehian, 1.231 milioi euroko balioak bidali baitzituzten herrialde bakoitzera. Alemaniaren kasuan, urte arteko hazkunde tasa %19,9koa izan zen, automobilgintzarekin lotutako ondasunek berriro bizi duten une onari esker lortu zena. Zehazkiago adierazita, garraio materialaren esportazioa, pisu handieneko partida hori baita, %23,4 handitu zen, eta makinak eta aparatuak, berriz, %15,3 hazi zen.

Frantziaren kasuan, EAEko esportazioak %9,2 gehitu ziren, batez bestekoa baino ia hamar puntu gutxiago. Metal arrunten salmenta eta manufakturak nabarmentzen diren arren, merkatu horretara bideratzen diren produktuak askotarikoak dira. Metal arruntak %14,1 hazi ziren, aurreko hiruhilekoko beherakadaren ondoren. Makinek eta aparatuek ere jaitsiera bat utzi zuten atzean, eta laugarren hiruhilekoan urte arteko igoera garrantzitsu bat eskuratu zuten, %24,9koa. Nabarmentzekoa da, halaber, erregai mineralak hartzen ari diren pisua, herrialde horretako salmenta guztien %10,6 baitira, hiruhileko horretan balioa bikoiztu ondoren.

Italiara bidalitako EAEko produktuen esportazioak %17,4 gehitu ziren, batez bestekoa baino pixka bat gutxiago. Bilakaera horretan, garraio materialaren salmentak lortutako bultzada handia nabarmentzen da, %75,8ko igoera nabarmena izan baitzuen, eta hiru hiruhilekotan emaitza bikainak pilatu zituen. Gainerako partida nagusiek ez zuten hain portaera dinamikoa izan. Hala, makinek eta aparatuek %8,2 gehitu zituzten salmentak merkatu horretan, baina metal arruntek eta beren manufakturek indarra galdu zuten aurreko urtearen aldean (-%5,5).

Nekazaritzako produktuak dira Euskaditik Erresuma Batura egiten diren esportazioetan pisu handiena duten ondasunak, guztizkoaren %26 biltzen baitute. Are gehiago, herrialde horri saldutako guztiaren %9 lekaleak eta barazkiak izan dira, eta horrek agerian uzten du herrialde horrek zailtasunak dituela elikagaiak lortzeko Europar Batasunetik irten ondoren. Aitzitik, garrantzi handia duten beste atal batzuek aldaketa txikiak edo negatiboak izan zituzten. Zehazki, garraio materialaren salmenta %3,4 baino ez zen hazi, eta metal arrunten balioa, ordea, %7,8 murriztu zen.

AEBetako merkatuak berriz ere oso portaera ona erakutsi zuen eta esportatutako balioa %45,7 hazi zen aurreko urtearen aldean. Pisu handieneko bi produktu blokeek aldakuntza tasa oso handiak erakutsi zituzten. Hala, metal arruntek eta beren manufakturek bikoiztu egin zuten aurreko urteko balioa (%111,0), eta makinak eta aparatuak %37,8 hazi ziren. Erregai mineralak ere aldakuntza tasa esanguratsua izan zuten hiruhileko horretan (% 27,1). Hala eta guztiz ere, garraio materialak oso portaera negatiboa izan zuen (-%61,2) aurreko aldietako emaitza onen ondoren.

Garapen bidean dauden herrialdeetara bidalitako salmentak %17,8 gehitu ziren iazko laugarren hiruhilekoan. Bereziki deigarria da erregai mineralen esportazioen bilakaera: 2021eko laugarren hiruhilekoan 8,6 milioi euro saldu ziren eta 2022ko hiruhileko berean, berriz, 133,0 milioi euro. Pisu handieneko bi taldeek portaera kontrajarriak izan zituzten aldi horretan. Izan ere, alde batetik, makinaren eta aparatuen esportazioa %6,3 handitu zen, aurreko hiruhilekoko jaitsieraren ondoren. Bestetik, garraio materialak beherakada nabarmena izan zuen aldi horretan, %18,5koa.

EAEko produktuen esportazioak Txinara %2,8 murriztu ziren laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan %20,0 jaitsi ondoren. Herrialdeko hiri nagusietako batzuetan ezarritako konfinamenduak salmenten dinamismoaren galera azaltzen du, eta hori aldatu egin liteke hilabete berrienetako irekierarekin. Garraio materiala da herrialde horretara esportatzen duen egituraren pisu handiena duen atala, eta %5,7ko jaitsiera izan zuen laugarren hiruhilekoan. Zorionez, makinaren eta aparatuen salmentak %10,5 egin zuen gora, eta atzean utzi zituen bost hiruhilekotan pilatu zituen jaitsierak.

Errusiak garrantzia galtzen jarraitzen du EAEko produktuen helmuga gisa. Europar Batasunak herrialde horri ezarritako zigorrak betetzen ari dira, eta laugarren hiruhilekoan 14,3 milioi euroko ondasunak baino ez ziren saldu, 2009az geroztik erregistratutako kopururik txikiena baita. Orain pisu handiena duen partida makinena eta tresnena da, baina hiruhileko horretan saldutako 7,3 milioi euroak urrun daude aurreko urteko 32,8 milioietatik. Garrantzi handiena duen hurrengo taldea garraio materiala da, 2,8 milioi euroko salmentekin, hau da, urtebete lehenago saldutakoa baino %79,7 gutxiago.

Brasil azken hiruhilekoetan EAEko enpresentzat garrantzia hartzen joan den helmuga da. Hala eta guztiz ere, laugarren hiruhilekoko esportazioen hazkundera oso apala izan zen eta %2,9a mugatu zen, aurreko sei aldietako hazkunde handietatik urrun. Guztira, 89,5 milioi euro balio zuten produktuak saldu ziren, eta horien artean makinetan eta tresnetan esportatutako 39,2 milioiak nabarmentzen dira, aurreko urtearen aldean %20,7 jaitsi arren. Jaitsiera hori garraio materialaren martxa onak (%57,8) konpentsatu zuen, batez ere aeronautika eta automobilgintzarako ondasunek, eta baita erregai mineralen salmentak (15,1 milioi euro) ere.

Atzeritik ekarritako ondasunen inportazioek ere urte arteko hazkunde garrantzitsua izan zuten 2022ko laugarren hiruhilekoan, %22,5era iritsi baitzen. Guztira, atzerrian egindako erosketek 7.539 milioi euroko kostua izan zuten, inoizko kopururik handienetakoa eta aurreko bi hiruhilekoetan izandakoen antzekoa. Hazkundera garrantzitsuagoa izan zen erregai mineralen erosketan (%48,2), eta ondasun ez-energetikoak erritmo txikiagoan hazi ziren (%14,1). Bi ataletan, prezioen igoera oso esanguratsua izan zen, eta erositako tonen urte arteko aldakuntza mugatuagoak izan zituzten. Zehazki, erregai tonen inportazioa aurreko urtekoa baino %13,2

handiagoa baino ez zen izan, eta, aldi berean, badirudi gainerako produktuen kopuruak murriztu egin direla.

Jatorriaren arabera, garapen bidean dauden herrialdeetatik ekarritako ondasunen eskaera handiagoa da (%34,0) ekonomia garatuetan egindako erosketen aldean (%17,0). Are gehiago, Europako herrialde nagusien artean, produktuen inportazioa Alemaniatik bakarrik nabarmentzen da (%15,2), gainerako herrialdeek %5etik beherako hazkundea izan baitzuten. Energiaren atalean, esan behar da Errusiari erregai mineralak erostearen zenbatekoa ia ez zela aldatu aurreko urtearekin alderatuta. Hain zuzen ere, 2021eko laugarren hiruhilekoan 295 milioi euroko produktuak salerosi baziren, 2022an zenbatekoa 293 milioi eurokoa izan zen, nahiz eta inportatutako kopurua %52,8 txikiagoa izan.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2021	2022	2022				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	34,1	39,7	42,4	51,1	46,1	22,5	7.538.603
ELGA	28,0	32,5	36,0	48,4	32,0	17,0	4.875.238
Eurogunea	28,5	22,3	31,0	30,3	19,5	10,8	3.063.788
Alemania	21,1	21,5	26,6	24,6	20,7	15,2	1.025.888
Frantzia	29,8	21,8	32,7	43,4	10,7	4,3	626.204
Italia	34,8	15,7	24,3	21,8	14,1	4,3	328.161
Erresuma Batua	33,6	42,5	131,6	64,5	-20,5	3,7	217.579
AEB	20,6	207,0	187,2	522,9	189,9	105,6	451.915
ELGAtik kanpokoak	48,8	54,5	56,5	56,8	73,7	34,0	2.663.365

Iturria: Eustat.

lazko laugarren hiruhilekoko merkataritza saldoa, guztira, 760 milioi eurokoa izan zen, EAEn aldekoa. Diru kopuru hori aurreko datua (103 milioi euro) baino askoz handiagoa da, baina nahiko apala da serie historikoko beste balio batzuekin alderatuz gero. Energia alorreko saldoa negatiboa izan zen, eta 1.529 milioi eurora iritsi zen. Inoiz izan den balio handienetako bat da, eta, lehen adierazi den bezala, energiaren prezioaren garestitze handiaren ondorioa da. Bestalde, produktu ez-energetikoen saldoa positiboa izan zen eta 2.289 milioi eurora iritsi zen. Inoiz izan den saldorik handienetakoa.

Prezioak, soldatak eta kostuak

Prezioen portaera aztertzen duten adierazleak beren aldakuntza tasak moteltzen hasi ziren 2022ko ekitaldiaren amaieran, nahiz eta egia den urteko erdialdeko hilabeteetan hazkunde tasa oso handiak izan zituztela. Hala ere, BPGaren deflatoreari dagokionez, goranzko joerarekin jarraitu zuen, eta urteko azken hiruhilekoan %4,8an kokatu zen, serie historiko osoko erregistrorik handiena baita, 2004ko azken bi hiruhilekoetan lortutakoarekin batera. Laugarren hiruhilekoko deflatorearen hazkundera kontsumo publikoaren deflatorearen ondorio izan zen batez ere, oraingo hiruhilekoko %4,2tik %4,7ra igo baitzen; kontsumo pribatuaren eta kapital eraketa gordinaren deflatorea, berriz, %4,7 horretatik gorako erregistroak markatu zituzten arren, aurreko aldikoak baino txikiagoak izan ziren.

Analisia KPIan zentratu baino lehen, adierazle horren neurketan izan diren hiru aldaketa garrantzitsu nabarmendu behar dira. Lehenik eta behin, gasaren eta elektrizitatearen merkatuen estaldura handitu da, bi sektoreetako merkatu libreari dagokion zatia gehituta. Bigarren metodologia aldaketak haztapenen kalkuluari eragin zion, eta horren iturri nagusia 2023tik aurrera Kontabilitate Nazionala izango da, Familia Aurrekontuen Inkestaren orde. Eta, azkenik, prezioak biltzeko gailu elektronikoak erabiltzen hasiko dira, informazioa lortzeko prozesua sinplifikatzeko.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2021	2022	2022		2023	Ekarpena
			III	IV	Otsaila	
Inflazio osoa (%100)	3,1	8,1	9,8	6,3	5,8	5,8
Azpiko inflazioa (%83,7)	1,0	5,1	6,2	6,2	7,4	5,9
- Elikagai landuak (%15,6)	1,4	10,2	12,3	14,7	16,3	2,5
- Industria ondasunak (%20,5)	1,0	4,7	5,7	5,1	6,9	1,4
- Zerbitzuak (%47,6)	0,7	3,3	4,1	3,6	4,1	2,0
Hondar inflazioa (%16,3)	12,1	20,0	23,8	6,1	-0,1	-0,1
- Landu gabeko elikagaiak (%7,0)	2,6	10,8	13,2	12,9	11,6	0,8
- Energia (%9,3)	21,3	28,2	32,7	0,2	-9,7	-0,9

Iturria: INE.

Inflazioaren bilakaerari dagokionez kontu zehatzetan fokatuta, adierazi behar da 2022ko azken hilabeteetan beheranzko joera izan zuela, baina aurtengo hasieran KPIaren urte arteko tasa apur bat igo dela. Zehatz-mehatz adierazita, uztailean %10,5eko balio maximoa lortu ondoren, adierazle horrek %5,4ko tasarekin amaitu zuen iazko urtea. Jaitsiera, batez ere, energiaren prezioen beherakadak eragin zuen, eta elikagaien prezioak maximo historikoetan kokatu ziren. Horiek horrela izanda, iazko zati handi batean gertatu zenetik aldenduta, energiaren prezioak nabarmen egonkortu ziren, petrolioaren eta gas naturalaren salneurriaren beheranzko bilakaerak lagunduta.

Brent motaren prezioa moteltzen joan zen, 80 dolarretik zertxobait gorako zifretan kokatu arte, Txinako jardueraren moteltzea, moneta politikaren gogortzeak mundu mailako eskaria hoztu zezakeen beldurra eta AEBetako eta Nigeriako produkzioaren igoera direla eta. Era berean, gas naturalari dagokionez, abuztuan balio gorenak lortu ondoren, hainbat faktorek eragin zuten jaitsiera, hala nola European lortutako erreserba maila altuak eta negua ohi baino epelagoa izateak.

Era berean, inflazioak izan duen eragina arintzeko asmoz, gobernu espainiarrak familientzako, ekoizpen sarerako eta argiaren fakturarako neurriak onartu zituen. Lehenengoan artean, berrikuntza nagusia elikagaietan BEZa jaitea izan da. Ekoizpenaren alorrean, berriz, erregai litroko 20 zentimoko deskontua kendu zaie erabiltzaile guztiei, eta horren ordeztu litroko 20 zentimoko deskontua egingo zaie martxoaren 31ra arte, eta litroko 10 zentimokoa apirilaren 1etik ekainaren 30era bitartean, gasolioa erabiltzen duten garraiolari profesionalei. Azkenik, elektrizitatearen eta gasaren gaineko zerga beherapenak 2023 urte osora hedatuko dira merkatu elektrikoan.

Merkatu elektrikoan hartu ziren neurri horiei esker, prezioen garestitze erritmoak izan zuen moteltzea askoz ere nabarmenagoa izan zen EAEn eurogunean baino. Hori horrela izanda, inflazioak eremu horrekiko duen diferentziala, orain Euskadiren aldekoa dena, oso modu esanguratsuan handitu zen, urte amaieran bere maximo historikoa lortu zuten erregistroekin, 3,8 puntukoa.

Probabilitate handiarekin, prezioen igoerak moteltzen jarraituko du datozen hilabeteetan ere, oinarrizko efektua deiturikoak beheranzko presio nabarmena egingo baitio inflazioari, batez ere 2023ko lehen erdian, kontuan hartuta KPIaren hazkunde handia 2022ko lehen erdian gauzatu zela nagusiki. Era berean, Espainiako gobernuak energiaren prezioen igoera murriztera bideratu dituen neurri horien inguruan hartuko dituen erabakiak eragina izango du inflazioaren bilakaeran.

Hala eta guztiz ere, inflazio globalak beheranzko joera erakutsi zuen bitartean, azpiko inflazioak aldakuntza tasa gero eta handiagoak izaten jarraitu zuen, eta 2023aren hasieran hainbat hamarkadako baliorik handiena jaso zuen (%7,4). Hazkunde horretan eragin handiena izan zuten osagaien artean, landutako elikagaiak nabarmendu behar dira, nahiz eta gobernu espainiarrak produktu jakin batzuen BEZa jaistera onartu. Era berean, produktu energetikorik gabeko ondasun industrialen prezioek igoera nabarmenak izan zituzten, oraindik ere eskaintzan botila lepo batzuk daudelako. Aitzitik, zerbitzuen inflazioa egonkortu egin zen, %4tik beherako erregistroekin.

Hondar inflazioak, azpiko inflazioak ez bezala, 2022. urtearen zati handi batean hazkunde oso handiak izan ondoren, balio negatiboak izan zituen 2023. urtearen hasieran. Jaitsiera nabarmen hori lehenago ere aipatu den produktu energetikoen prezioen beheranzko joeran oinarritu zen, baina, neurri batean, eragin hori arindu egin zen, landu gabeko elikagaietan izandako garestitzearen ondorioz.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2022				2023
			I	II	III	IV	Otsaila
Indize orokorra	3,1	8,1	7,6	8,6	9,8	6,3	5,8
Janariak eta alkohol gabeko edariak	2,0	11,2	5,7	10,3	13,6	15,1	15,5
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,4	4,3	2,5	4,4	5,0	5,2	7,6
Jantziak eta oinetakoak	1,0	2,9	3,9	2,8	4,1	0,8	3,4
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	11,3	16,5	26,8	18,7	21,5	-1,1	-6,9
Etxeko hornidura	1,9	6,6	4,6	6,0	7,4	8,4	8,3
Medikuntza	0,8	0,6	0,8	0,3	0,6	0,7	1,8
Garraioa	7,3	11,2	13,4	14,3	11,1	6,2	2,3
Komunikazioak	-2,9	-1,2	-0,6	-0,2	-2,3	-1,9	2,6
Aisia eta kultura	-0,1	3,2	1,3	3,4	4,4	3,6	3,1
Irakaskuntza	0,9	1,6	1,5	1,5	1,6	1,9	1,9
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,2	5,9	3,2	6,2	7,5	6,9	7,0
Besteak	1,3	3,8	3,0	3,4	4,2	4,4	5,3

Iturria: INE.

Zehazki, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldea izan zen, alde handiz gainera, inflazio globalaren goranzko bilakaera gehien baldintzatu zuena, ehuneko historikoetan, %15etik gorakoetan, mugitu baitzen, produktu horietan erregistratutako BEZaren beherapena ia nabaritu gabe. Aitzitik, etxebizitzaren, uraren, elektrizitatearen eta gasaren taldea, azken hiruhilekoetan KPIaren igoeran eragin nabarmena eduki ondoren, 2023ko ekitaldiaren amaieran eta aurtengo hasieran balio negatiboetan kokatu da, energiaren prezio apalagoek lagunduta.

Industriako prezioek, bere aldetik, iazkoaren erdialdean errekorrak markatu ondoren (maiatzean %29,7ko gailurra ezarri zuten), urte arteko hazkunde tasak moteldu egin zituzten eta bi zenbakietatik beherako balioetan kokatu ziren, energiaren kostu txikiagoek eraginda. Sektoreen azterketak heterogeneotasun nabarmena erakutsi zuen. Horrela, aipatutako energiaren jaitsieraz gain, energia elektrikoaren ekoizpena eta petrolioaren fintzea merkatzearen ondorioz, bitarteko ondasunak ere moteldu ziren, produktu kimikoen fabrikazioan kostu txikiagoa izan zelako. Aitzitik, kontsumoko ondasunek tasa altuetan jarraitu zuten, batez ere edarien eta tabakoaren elikagai industrietan gehieneko aldakuntza tasak izan zituztelako.

Iazko azken hilabeteetan prezioek erakutsi zuten moteltzeari eta hitzarmenak indarrean dituzten eta urtean zehar sinatutako hitzarmenak dituzten enplegatuen soldaten igoera handiagoei esker, erosteko ahalmenaren galera murriztu egin zen eta aurreko hilabeteetakoa baino txikiagoa izan zen. Zehazkiago adierazita, bi kasuetan, soldata igoera %4,1ekoa izan zen, aurreko urteetako kopuruen oso gaineratik, nahiz eta urtean indarraldi arrunteko hitzarmenak dituzten langileen ehunekoak %45 inguruan jarraitzen duen, 2020ko zifratik urrun, ordukoa %55etik gorakoa baitzen.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022
Indarrean dauden hitzarmenak:	1,9	2,0	1,7	1,2	4,1
- Urtean zehar sinatutakoak	2,2	2,3	1,2	1,1	4,1
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	2,0	2,1	1,7	1,0	3,9
- Enpresako hitzarmenak	1,6	1,8	1,7	1,9	4,7

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Azkenik, lan kostuak %5,4 igo ziren 2022aren amaieran, eta langile eta hilabete bakoitzeko 3.500 eurotik gorako batez bestekoa izan zuten, 2000. urtean seriea hasi zenetik erregistratu den diru kopururik handiena baita. Lan kostuaren igoera hori, bederatzi hiruhilekoz jarraian goraldiak metatzen dituena, aurreko urteko hirugarren hiruhilekoan erregistratutakoa baino ia lau puntu handiagoa izan zen, orduan %1,7 handitu baitzen. Era berean, benetan lan egindako ordu bakoitzeko kostua %5,1 handitu zen urte arteko tasan iazko laugarren hiruhilekoan, benetan lan egindako orduak aurreko aldiko erregistro negatiboak utzi zituztelako, nahiz eta igoera hori oso apala izan zen (%0,3).

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2021		2022		
			IV	I	II	III	IV
Lan kostu guztiak langileko	4,9	2,7	3,4	2,1	1,5	1,7	5,4
- Soldata kostua guztira	4,9	2,9	3,8	2,5	1,5	1,0	6,2
- Bestelako kostuak	4,8	2,2	2,2	0,8	1,4	3,6	2,9
Lan kostu guztiak orduko	-2,4	2,6	0,3	-0,5	-1,1	6,3	5,1
- Soldata kostua guztira	-2,4	2,8	0,7	0,0	-1,0	5,5	5,9
- Bestelako kostuak	-2,6	2,2	-0,9	-1,8	-1,2	8,4	2,6
Adostutako lan orduak	1,5	-0,5	1,4	-0,1	-1,0	-0,5	-0,5
Benetan lan egindako orduak	7,2	0,4	3,0	2,5	2,6	-4,3	0,3

Iturria: INE.

Arlo publikoa

Zerga itunduen bidezko diru bilketak errekorra lortu zuen Euskadin 2022. urtean, Jaurlaritzaren eta foru-aldundien igurikimenik onenak ere gaindituz. Zehatz-mehatz adierazita, 17.130 milioi eurotik gorako diru bilketa lortu zen, baina egia da urte arteko aldakuntza tasa motelduz joan zela iazko azken hilabeteetan, eta %7,3koa izan zela urtearen amaieran. Neurri handi batean, inflazioak izan zuen gorakadak bultzatu zuen errekor hori, bereziki iazko urtearen erdialdean, ekoizpen kateetan gertatu ziren botila lepoen, energia krisiaren eta Errusiak Ukraina inbaditu izanaren ondorioz.

TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-abendua)

Mila euro

TRIBUTUAK	Diru bilketa		
	2021	2022	% Ald. 22/21
PFEZ	6.114.393	6.497.698	6,3
Sozietateen gaineko zerga	1.155.151	1.351.267	17,0
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	62.212	108.464	74,3
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	179.944	152.753	-15,1
Ondarearen gaineko zerga	171.456	169.734	-1,0
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak	27.509	28.835	4,8
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	24.673	641	-97,4
ZUZENKO ZERGAK GUZTIRA	7.735.340	8.309.391	7,4
BEZ	6.256.924	6.921.389	10,6
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	182.440	178.482	-2,2
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	40.945	45.360	10,8
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	20.279	24.813	22,4
Fabrikazioaren zerga berezia	1.888.894	1.856.872	-1,7
Aseguru sarien gaineko zerga	104.638	112.458	7,5
Joko jardueren gaineko zergak	6.591	4.621	-29,9
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	3.207	4.465	39,2
Iraungitako zergak	-77	-1	98,2
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	8.136.336	8.785.378	8,0
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	91.533	35.948	-60,7
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	15.963.209	17.130.717	7,3

Iturria: Foru aldundiak.

Hurrengo hilabeteetan, inflazioa moteltzen joan zen, eta, ondorioz, aldakuntza tasa horiek udako hilabeteetan aurkeztutakoak baino balio apalagoak erakutsi zituzten. Ildo horretan, eta aurtengo urteari begira, inflazioak BEZaren gainean ekarpen txikiagoa egingo duela espero daiteke, prezioetan aurreikusten den igoera apalagoen ondorioz. Aitzitik, PFEZren gaineko eragina are handiagoa izan liteke, soldaten hazkunde tasan nolabaiteko bizkortzea gertatzen bada.

Analisisa PFEZ zergarekin hasita, zerga figura horrek balio nabarmen handiak jasotzen jarraitu zuen (%6,3 handitu zen), enpleguaren tonu onak eta soldaten bilakaerak lagunduta. Era berean, handitu egin ziren kapital higigarriaren etekinen atxikipenak eta kapital higiezinaren etekinenak, bai eta enpresa pertsonalen ordainketa zatikatuak ere, 2022ko mozkinak izan zuten portaera onaren isla.

Beste aldetik, zuzeneko zergapetzearen beste osagai nagusiak, hau da, sozietateen gaineko zergak, zerga guztien urte arteko aldakuntzarik handiena markatu zuen (%17,0), 2018tik lortu ez ziren zifrak eskuratu eta gero, enpresen emaitzetan izandako hobekuntzaren ondorioz.

Zeharkako zergei dagokionez, BEZak apur bat murriztu zuen bere hazkunde erritmoa (%10,6), ekonomiaren bizitasun apalagotik eta kontsumoaren balizko motelte batetik eratorritako eraginaren zain. Hala ere, oraindik ere igoera nabarmenak lortu dituzte, kontsumo prezioetan izandako igoerek eragin handia izan dutelako.

Azkenik, bilakaera positibo horretatik aldendu zen figura bakarra zerga bereziena izan zen, urte arteko jaitsierak (-%1,7) jaso baitzituzten, Espainiako gobernuak energia horniduraren garestitzea arintzeko onartu zituen zerga murrizketek eragin handia izan baitzuten. Horrela, elektrizitatearen gaineko zerga %69,6 jaitsi zen aurreko urtearen aldean. Azkenik, hidrokarburoek ere emaitza negatiboak izan zituzten (-%3,1), gasolioen eta gasolinen kontsumoak behera egin zuelako.

Arlo finantzarioa

2022ko azken hilabeteetan, lehenago aipatu diren faktore makroekonomiko eta geopolitiko guztiek finantza merkatuak gogor kolpatzen jarraitu zuten, eta diru politikaren erabakiekiko sentzibilitate handia erakutsi zuten. Ondorioz, burtsako kotizazioak jaitsi egin ziren eta errenta finkoko tresnetan eskatutako errentagarritasuna handitu egin zen. Hala eta guztiz ere, aurtengo hasieran, inbertitzaileek uste zuten inflazio shockaren okerrera atzean gera zitekeela (energiaren prezioak merkatu egin ziren, botila lepoak hobetu egin ziren), eta arriskuagatik gosea berreskuratu zuten. Horrek gorakada orokorrak ekarri zituen errenta finkoko eta errenta aldakorreko merkatuetan eta hasiera kolore berdearekin burtsa nagusietan, hegakortasunari nolabait eusten.

Merkatuetan sumatu zen suhartasuna ez zen bat etorri banku zentralen mezuekin, moneta politika gogortzen jarraitzeko erretorikan irmo agertu baitziren. Hala, Europako Banku Zentralak

(EBZ) %3,5era igo zuen martxoan diruaren prezioa. Erakundeak urte erdi eskasean jarraian onartzen duen seigarren igoera da. Ingalaterrako Bankuak ere igo zuen erreferentziazko tasa otsailean, %4,0raino kasu honetan, 2008ko udazkenetik izan duen mailarik altuenera, alegia. Erreserba Federalak, berriz, %4,75-%5,0raino igo zuen bere interes tasa ofiziala, nahiz eta, beste erakundeek ez bezala, Fedek igoeren hazkunde erritmoa murriztu zuen (oinarrizko 50 puntutatik 25 puntutara) eta adierazi zuen sabaia gertu dagoela, eta litekeena dela beste igoera bat edo bi egotea zikloa amaitu aurretik.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (I)

	2021	2022	2022			2023		
			Urria	Azar.	Aben.	Urta.	Otsa.	Mar (*)
Interes tasa ofizialak (%)								
Europako Banku Zentr.	0,00	2,5	1,25	2,0	2,5	2,5	3,0	3,5
Erreserba Federala	0,25-0,0	4,25-4,5	3,0-3,25	3,75-4,0	4,25-4,5	4,25-4,5	4,5-4,75	4,75-5,0
Japoniako Bankua	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10
Ingalaterrako Bankua	0,25	3,5	2,25	3,0	3,5	3,5	4,0	4,0
Txinako Banku Popular	3,80	3,65	3,65	3,65	3,65	3,65	3,65	3,65
Brasilgo Banku Zentr.	9,25	13,75	13,75	13,75	13,75	13,75	13,75	13,75
10 urteko zor publikoaren errentagarritasuna								
Alemania	0	0	0	0	0	0	0	0
Espainia	77	109	108	102	109	104	104	104
Grezia	149	203	243	222	203	204	179	185
Erresuma Batua	115	111	137	122	111	106	119	113
Italia	136	213	217	194	213	199	184	185
AEB	168	127	192	176	127	125	128	124

(*) Martxoaren 22ko datuak.

Iturria: Espainiako Bankua.

Moneta politikako dinamika horiekin kontrastean, Japoniako (BoJ) eta Txinako banku zentralek beren interes tasak aldaketarik gabe mantendu zituzten azken hilabeteetan. BoJ-ren kasuan, inbertitzaileek gero eta presio handiagoak egiten dituzte pizgarri handiagoak jasotzeko, eta prezioen gorakadari (%4,4 urtarrilean) eusteko neurriak eskatzen dituzte. Hala ere, oraingoz, erakundeak ez du %0aren inguruko interes tasen etapa itxi. Japonia munduko nazio industrializatu zorpetuena da, eta hamar urterako bonuen errentagarritasuna igotzeak are astunagoa egingo luke zor publikoaren ordainketaren karga, urteko ekoizpen ekonomikoa

bikoizten baitu. Txinako banku zentralaren kasuan, 2022ko abuztuan bere esku hartze tasa %3,65era murriztu zuen bere higiezinaren merkatua suspertzeko, eta bertako ekonomia hoztu zenez, orain arte aldatu gabe mantendu du. Kreditu erraztasunaren bidez finantza sistemari likidezia ematea izan da bere erabaki bakarra.

Testuinguru horretan, 2022ko azken hiruhilekoan 10 urterako bonu subiranoen errentagarritasunak nabarmen handitu ziren, moneta politika azkar gogortu zelako. Ondoren, urtarrilean, joera hori partzialki aldatu zen, inflazioaren datuak espero baino txikiagoak izan zirelako eta energiaren prezioak apaldu egin zirelako. Horrela iraun zuten EBZk eta Fed-ek otsailean eginiko bilerak arte, beheranzko joera leun batean, eta azken horiek, tasen igoera berriarekin eta etorkizuneko hazkunde berrien berrespenarekin, errentagarritasunak berriro ere gorantz bultzatu zituzten. Zehazki, AEBetako 10 urterako Altxorraren bonuaren errentagarritasuna %4,0tik gorakoa izan zen martxoaren hasieran, eta Alemaniako bonuaren errentagarritasuna, berriz, %2,7tik gorakoa.

Hala ere, Europako zor subiranoen eta Alemaniako erreferentziaren arteko epe luzeko errentagarritasun-diferentzialak behera egin zuen. Espainiako arrisku-saria iazko maiatzean eta ekainean izandako igoera handiaren aurreko lasaitasuna berreskuratzen ari da. Izan ere, Europako Banku Zentralaren tasen lehen igoeraren preludeak, uztailean iragarritakoak, agerian utzi zituen euroguneko finantza zatiketaren beldurrak. Zehatzago esanda, Espainiako arrisku-saria oinarrizko 100 punturen bueltan dago, eta adituek ez dute aurreikusten nabarmen aldatuko denik datozen hilabeteetan. Italiako arrisku-saria oinarrizko 185 puntuetan ere finkatu da, inbertitzaileek Giorgia Meloniren gobernu berriak Bruselaren agindua desafiatuko ez zuela egiaztatu ondoren.

Munduko burtsa indize nagusiei dagokienez, denbora luzeagoan interes tasa altuagoak izango dituen agertoki baten perspektibak inbertsiogileen asmoak ilundu zituen ziklo ekonomikoaren martxari dagokionez, eta 2022an sakoneko galerak utzi zituen munduko indize nagusietan. Besteak beste, kontinente zaharreko erreferentzia den EuroStoxx 50 indizeak %11,5eko galerekin amaitu zuen urtea, eta Wall Streeteko selektibo nagusia den S&P 500 indizeak, berriz, %19,4ko urteko balantzea eman zuen, 2008tik hona izan duen emaitzarik txarrenea baita. Espainiako merkatuan, halere, atzerakada ez zen hain handia izan, nahiz eta negatiboa izan han ere. Zehatzago, Ibex 35ek %5,6 egin zuen behera, eta 2022a 8.230 puntuen azpitik kokatu zen.

2022. urtea ahazteko modukoa izan zen arren, 2023a irabazi orokorrekin hasi zen. Jarduera ekonomiko globalaren moteltzearen ebidentziak, munduko ekonomia nagusietako batzuetan inflazioaren tasak moteldu izanaren seinale hasiberriek eta, are gehiago, zenbait banku zentralek erabilitako komunikazioak mesede egin zien nazioarteko kapital merkatuetako inbertitzaileei interes tasa ofizialen igoeretan espero baino iraultze azkarragoa aurreikus

zezaten, eta indize desberdinen kotizazioak gorantz bultzatu zituen. Horiek horrela, burtsetan 2023ko hasiera 2019tik inoiz gertatu den hasierarik onena dela pentsatzen da. Eurostoxx-50ek %9,7ko balio handitzeekin amaitu zuen urtarrila, S&P 500ek %6,2koa, Nikkeik %4,7koa eta Ibex-35ek %9,8ko irabaziekin.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (II)

	2021	2022	2022			2023		
			Urria	Azar.	Aben.	Urta.	Otsa.	Mar. (**)
Truke tasak								
Dolarra/euro	1,184	1,054	0,983	1,020	1,059	1,077	1,072	1,077
Yena/euro	129,9	138,0	144,7	145,1	142,8	140,5	142,4	142,6
Libera esterlina/euro	0,860	0,853	0,871	0,869	0,870	0,882	0,886	0,880
Yena/dolarra	109,8	141,5	147,3	142,3	134,8	130,5	132,9	132,6
€ efektibo nomin.(%)	99,7	95,6	94,8	96,0	97,0	97,3	97,3	97,2
Burtsa indizeak (*)								
IBEX35	7,9	-5,6	-8,7	-4,0	-5,6	9,8	14,2	10,0
Eurostoxx-50	21,0	-11,7	-15,8	-7,8	-11,7	9,7	11,7	10,2
Dow Jones	18,7	-8,8	-9,9	-4,8	-8,8	2,8	-1,5	-1,8
Nikkei 225	4,9	-9,4	-4,2	-2,9	-9,4	4,7	0,2	0,0
Standard & Poors	26,9	-19,4	-18,8	-14,4	-19,4	6,2	3,4	4,3

(*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilekoaren azken egunera arte. (**) Martxoaren 22ko datuak.

Iturria: Espainiako Bankua.

Hala ere, interes tasen bilakaeraren igurikimenean biraketak ibilbide positibo hori okertu zuen, eta otsailaren amaieran, Fedek eta EBZk interes tasak berriro igo ondoren, inbertitzaileen arteko beldurra itzuli eta indizeen bilakaeran atzera egin zuen. Beherakada hori areagotu egin zen martxoan Fedek Silicon Valley Bank (SVB) esku hartu behar izan zuenean.

Erakunde horrek covid-19aren krisian lortutako gehiegizko likidezia epe luzerako Altxorraren bonuetan inbertitu zuen, eta aktibo horiek Erreserba Federalaren interes tasen igoerak kaltetu ditu azken hilabeteetan. Halaber, gordailuen bilketa aurreikusitakoa baino txikiagoa zen. Egungo koiunturaren aurrean, tasen igoerekiko kalteberenak ziren enpresa askok likidezia gehiago behar izan zuten eta banku gordailuak atera zituzten. Horren ondorioz, bankuak galeretan saldu behar izan ditu aktiboak, eta horrek krisia sortu du gordailugileen artean; izan ere, gordailu gehiago kentzen jarraitu duenez, likideziarik izan ez duen unea iritsi da, eta erreskatea behar izan du. Izan ere, bere akzioak %60 hondoratu ziren, eta horrek inbertsore andana galtzea eragin

zuen. Handik gutxira, Credit Suisse bankuak ere likidezia arazoak izan zituen eta 50.000 milioi liberako erreskatea behar izan zuen. Azkenik, Suitzako beste banku batek, UBSk, erosi du.

Gainerako ekonomia kutsatzeko beldurrak, 2008ko krisian gertatu zen bezala, gorriz tindatu zituen munduko burtsa nagusiak. Uhin hedakor bat saihesteko, gobernuek berehala hartu zituzten beren bezeroen gordailuak babesteko neurriak. Orobat, EBZk bidalitako lasaitasun mezuak ere lagundu zuen burtsek igoerak berreskuratzen. Zehatz-mehatz adierazita, martxoaren erdialdean (txosten honetarako erreferentziazko azken datua hori baita), S&P 500 indizeak %4,1eko mozkinak metatu zituen, eta Dow Jones indizeak, berriz, -%1,8ra handitu zuen jaitsiera. Oro har, Europako parkeek portaera hobea izan zuten, eta irabaziak murriztu arren, maila positiboan mantendu ziren (Ibex-35 %10,0, Eurostoxx-50 %10,2 eta Dax %9,1, besteak beste).

Dibisa merkatuetan, euroak dolarraren aldean parekotasuna berreskuratzeaz gain (joan den irailean 0,96 dolarrera jaitsi zen euroaren kotizazioa), Europako moneta beste urrats bat eman zuen eta otsailaren hasieran dolarraren aldean %3,0ko balio handitzea lortu zuen. Moneta bakarraren kotizazioaren etengabeko igoeraren atzean, AEBen eta euroaren eremuaren arteko interes tasen diferentzialen estutzea dago, bai eta EBZk inflazioaren aurkako borrokan erakutsitako sendotasuna ere, Fed-en mugimendu apalenekin kontrastatuta (Europako erakundeak oinarrizko 50 puntuko hazkundeei eutsi zien, eta AEBkoak, berriz, oinarrizko 25 puntukoei). Dolarrak ere atzera egin zuen libera esterlinaren eta franko suitzarraren aldean, iazko ekainetik ikusi gabeko mailetaraino. Horrek erakusten du euroa Lagarderen tonu oldarkorragoagatik gailentzen ari zela, eta, horrez gain, AEBko dibisak atzera egin zuen Erreserba Federalaren erabakien aurrean, lasaitzeko arrazoiak baitzituen.

Dolarraren balio galera hori martxoan eten zen, Fedek, inflazioaren presioen iraunkortasuna ikusita, erreferentzia tasak erritmo handiagoan eta denbora luzeagoan handitzeko prest dagoela iragarri zuenean, datu ekonomikoek justifikatzen badute. Horrek joera murriztaile berri bat ekarri zuen inbertsiogileen artean, dolarra bultzatu eta euroaren kotizazioa dolarrarekiko 1,06 dolarreraino murriztu baitzuen, 2023an hasi zen maila berera.


EBZk tasetan izandako igoera horiek eragin zuzena izan zuten 12 hilabeterako euriborrean. Hala, azken urtean soilik, Euriborrak 3,87 puntu egin du gora, 24 urteko historian izandako eskaladarik bizkorrena. Eta oraindik goranzko bidea geratzen da, besteak beste, esku hartzeko interes tasa %3,5ean dagoelako jada, eta euriborraren batez bestekoa jada %3,687an dagoelako, maila horretatik gora, azken astean beherakada bortitza pairatu bazuen ere.

Euriborraren etengabeko igoera horrek eragin zuzena izan zuen higiezinaren merkatuan, eta 2022aren amaieran gelditu egin zen, urrezko urte baten ondoren. Zehazki, azken 11 ekitaldietako hipoteka eragiketa gehien erregistratu badira ere (22.905 hipoteka sinatu ziren 2022an), hipoteken formalizazioa nabarmen galgatu zen iazko azken bi hilabeteetan. Hain zuzen ere, %5,3 murriztu zen azaroan eta %21,9, berriz, abenduan. Urte bikain batean gertatu den joera aldaketa hori azaltzen duen arrazoi nagusia finantzaketa garestitzea da, interes tasen gorakadak eraginda. Izan ere, gorakada horren ondorioz, erosle potentzial askok atzeratu egin behar izan dute etxebizitzaren erosketa. Era berean, pandemiaren ondoren etxez aldatzeko euforia agortu izanak eta higiezinak ez diren beste produktu batzuetan egindako inbertsioa bideratzeak ere eragin negatiboa izan zuten higiezinaren merkatuaren bilakaeran.

Etxebizitzaren hipoteken bilakaera

Zenbatekoa (ezkerrean, milioiak) hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Hala eta guztiz ere, hipoteken eta higiezinaren merkatuak egoera sendoa erakusten jarraitzen du, 2019an erregistratutakoen antzeko balioekin. Zifren arabera, fase berri batean sartzen ari gara, eta gakoa izango da zehaztea ea jardueraren atzerakada edo normalizazio berri bat den, azken urte eta erdiko boomaren ondoren. Interes tasei dagokienez, 2020an joera alderantzikatu zenetik, hipoteka finkoen eraketak nabarmen gaitzen du hipoteka aldakorrena, batez ere mailegu horiek eskaintzen duten segurtasunagatik; izan ere, mailegu horien kuotak ez dira aldatzen Euriborraren gorabeheren aurrean. Abenduan, etxebizitzaren gaineko hipoteken %34,5 tasa aldakorrean eratu ziren eta %65,5, berriz, tasa finkoan.

INERen datuen ildotik, banku maileguen inkestak jasotzen du 2022ko laugarren hiruhilekoan maileguak emateko irizpideak, oro har, gogortu egin zirela Espainian. Horrek, beldurrarekin eta

ziurgabetasunarekin eta interes tasen hazkundearen testuinguruarekin batera, kredituen eskariak behera egin zuen familia unitateen bi segmentuetan (etxebizitza erostea, kontsumoa eta beste helburu batzuk), eta enpresetatik etorritakoak, berriz, pixka bat gora egin zuen, izakinak eta kapital zirkulatuak finantzatzeko premia handiagoek bultzatuta. Hala eta guztiz ere, kreditu pribatuen balantzea negatiboa izan zen, kreditu publikoen bilakaera bezala, eta horrek zorpetze osoaren %0,5eko jaitsiera ekarri zuen 2021eko mailarekin alderatuta. Izan ere, EAEko sektorearen 2022ko zorpetzea BPGaren %82,3koa izan zen, txikiena 1999tik. Urrun daude 2008ko krisiaren %130etik gorako ratioak.

Gordailuei dagokienez, burtsen hegazkortasunak eta ziurgabetasun handiak aktibo seguruagoetan inbertitzea bultzatu zuten. Hala izanda, bai gordailu publikoek bai pribatuek igoera positiboak eskuratu zituzten, eta, gordailu publikoen kasuan, orain arte erregistratutako zenbatekorik handiena lortu zuten. Gordailu pribatuak, berriz, 88.000 milioi euro inguru izan ziren, maila garrantzitsua baita, baina 2022ko bigarren hiru hilekoan lortutako erregistroa baino pixka bat txikiagoa, orduko hartan 90.000 milioi inguru izan baitziren. Erosketa saskiaren prezio altuak, ekoizpeneko kostu altuek eta zorpetzearen garestitzeak aurrezkiak erabiltzea eskatzen ari dira. Azkenik, eperako gordailuek jarraitzaileak galdu zituzten. 6.200 milioi pasatxo izan ziren guztira.

KREDITU ETA GORDAILUAK

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2021	2022	2022				Aldea 2008-IV eta 2022-IV		
			I	II	III	IV	IV	Milioi €	Tasa
Kredituak	0,1	-0,5	0,3	0,9	1,9	-0,5	69.903	-17.517	-20,0
Arlo publikoa	15,8	-0,7	11,7	7,6	0,1	-0,7	9.370	7.341	361,9
Arlo pribatua	-1,9	-0,5	-1,3	-0,1	2,2	-0,5	60.533	-24.858	-29,1
Gordailuak	4,7	1,5	5,6	3,3	2,6	1,5	97.644	21.301	27,9
Arlo publikoa	53,1	5,3	50,2	23,4	10,9	5,3	9.838	4.105	71,6
Arlo pribatua	1,2	1,1	2,6	1,7	1,8	1,1	87.806	17.196	24,4
Agerikoak	5,1	2,0	6,3	4,7	4,1	2,0	6.243	54.576	202,2
Eperakoak	-26,6	-23,9	-26,9	-25,9	-24,9	-23,9	81.563	-37.380	-85,7

Iturria: Espainiako Bankua.

Aurreikuspenak

Ekonomia globalaren hazkunde erritmoa %2,9ra mugatuko dela aurreikusi da 2023an, hau da, 2022an lortu zuena baino bost hamarren gutxiago, baina, aldi berean, goranzko berrikuspen txiki bat egin da, ehuneko bi hamarrenekoa, NDFk urrian aurkeztu zuen aurreko aurreikuspenarekin alderatuta. Oraindik ere beheranzko arriskuak dira nagusi goranzko arriskuen gaineratik, nahiz eta arrisku horiek denboraren poderioz gauzatu gabe jarraitzea seinale positibotzat hartu behar den.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2022	2023	2024	2022	2023	2024
Munduko ekonomia	3,0	2,0	2,4	7,3	5,3	3,4
AEB	2,1	1,0	0,9	8,0	4,2	2,6
Kanada	3,4	0,6	1,4	6,8	3,7	2,3
Japonia	1,0	1,0	1,1	2,5	2,3	1,3
Eurogunea	3,5	0,6	1,1	8,4	5,6	2,4
Europar Batasuna	4,3	0,6	1,6	9,8	6,1	2,8
Alemania	1,8	0,0	1,3	6,9	6,0	2,7
Espainia	5,5	1,3	1,8	8,4	4,1	2,7
Frantzia	2,6	0,5	1,1	5,3	4,9	2,5
Herbehereak	4,5	1,1	1,3	10,0	4,6	3,3
Italia	3,8	0,6	1,0	8,2	6,2	2,4
Erresuma Batua	4,0	-0,5	0,7	9,1	6,4	2,9
Asia Pazifikoa	3,3	4,0	4,0	3,2	3,1	2,4
Ekialdeko Europa	0,9	0,3	2,7	22,9	14,7	8,7
Latinoamerika (Venezuela ezik)	3,6	1,1	2,0	15,7	13,7	10,8

Iturria: Consensus Forecasts (2023ko martxoa).

Errusiak Ukraina inbaditzearen ondorioz prezioak igo izanak hornikuntza kate globalen blokeoaren ondorioz hasitako inflazio prozesuaren lekukoa hartu zuen. Horren ondorioz, banku zentralek interes tasak bat-batean igo dituzte inflazioari aurre egiteko ahaleginean. Ere horretan kokatzen dira beheranzko arrisku gehienak: gerra are gehiago gogortzeak prezioen shock berriak eragitea eta merkataritza blokeak tenkatzea, soldata nominalek galdu duten erosteko ahalmena berreskuratzea eta inflazioak bere horretan irautea, interes tasen igoera oldarkorrak finantzazioko arazoak eragitea gehien zorpetutako herrialde zein enpresentzat, edo

Txinako ekonomia berriz irekitzeak izan dezakeen eragin oraindik zehaztugabea negatiboa izatea.

Munduko ekonomiaren moteltzea batez ere ekonomia aurreratuetan gertatzen da, lehenago adierazi diren arrisku faktoreen ondorioz. NDFk %1,2ko hazkundea iragarri du 2023rako, eta %1,4koa, berriz, 2024rako; iazkoa %2,7koa izan zen bitartean. AEBentzat aurreikusi duen BPGaren hazkundea %1,4koa da 2023an eta %1,0ra jaitsiko da 2024an. Beste aldetik, Consensus Forecast taldeak osatzen duen panelak, berriz, %1,0ra jaitsi du hazkunde hori 2023an eta hamarren batean okertzen du 2024rako. Lan merkatu estatubatuarrak bere indarra erakutsi zuen 2022 urte osoan zehar, %3,6ko langabezia tasarekin eta soldata igoera nabarmenekin, baina, une hauetan, igurikimenak okertu dira, adituen talde beraren arabera, eta langabezia tasa %4,1era eta %4,7ra igozteak aurreikusten da 2023an eta 2024an, hurrenez hurren. Hori guztia Erreserba Federalak inflazioa kontrolatzea lortzearen mende dago, interes tasak handituz. Interes tasek %5,0-%5,25 bitarteko goiko muga izango dute 2023an, urte honetan espero den prezio mailaren igoerari, %4,0aren inguruan kokatuko dela aurreikusten baita, erantzuteko.

Azaleratzen ari diren ekonomiei dagokienez, NDFk espero du oro har %4,0 haziko direla 2023an, eta %4,2, berriz, 2024an. Txinarentzat, 2023a ekonomia berriz irekitzeko urtea izango da, covidaren aurkako neurri murriztaileak amaitu ondoren. Horrela, 2022a %3,0ko hazkunde geldiarekin amaitu ondoren, NDFk espero du herrialdeko ekonomiak %5,2 egingo duela gora 2023an, hedapen erritmoa %4,5era jaitsiko dela 2024an, eta ohartarazi du litekeena dela epe ertainean hazkunde tasak %4,0ko mugaren azpitik geratzea.

Badirudi Europar Batasunak azkenean saihestu egingo duela 2023an atzeraldian sartzea, eta %0,8 haziko dela urtean zehar, 2024an %1,6ra arte hobetuta; aldiz, espero da eurogunean produkzioaren hazkundea hamarren bat handiagoa izatea 2023an, eta hamarren bat txikiagoa 2024an, Europar Batasun osoan baino. Hala adierazten du Europako Batzordeak neguko txosten batean, aurrekoa baino karga ezkor txikiagoarekin. Txosten horretan, funtsean, lan merkatuaren bilakaera positiboaren eta testuinguru zail batean gas kontsumoa murrizteko lorpenaren balantzea egiten da. NDFk, antzera, eurogunearentzat %0,7ko hazkundea aurreikusi zuen urtarrilean 2023rako, eta %1,6koa 2024rako; Consensus Forecasten, berriz, aurreikuspenak ezkorragoak dira, eta hazkunde aurreikuspenak %0,6an eta %1,1ean geratu dira urte horietarako.

EBko langabezia maila minimo historikoetan kokatzen da une hauetan, %6,1eko tasa batekin 2022ko abenduan, eta datozen bi urteetarako aurreikuspenek adierazten dute antzeko mailetan jarraituko duela, nahiz eta hazkunde ekonomikoaren motelaldiak neurri batean hoztu egingo duen enpleguaren sorrera, langabeziaren hazkunde puntualekin. Horri gehitu behar zaio soldata nominalen hazkundea inflazioarena baino nabarmen txikiagoa izan dela azken urtean. Hori dela

eta, langabezia maila txikiarekin batera, aurreikus daiteke soldatapekoek galdu duten erosteko ahalmena berreskuratze aldera presioak izango direla eta horren eragina enplegua sortzeko ahalmenari nagusituko zaiola. Horiek horrela izanda, Europako Banku Zentralak egin dituen kalkuluen arabera, soldatapeko bakoitzeko ordainsariaren igoera %5,3koa izango da aurten, eta 2022an %4,6koa izan zen, nahiz eta 2023an enplegua %0,8 haztea aurreikusten den, iazko %2,2ko igoera baino txikiagoa. Hala eta guztiz ere, ez dirudi epe laburrean erosteko ahalmena erabat berreskuratuko denik, errenta erabilgarria murriztu egingo baita eta kontsumo pribatua kaltetu.

2022an euroguneko inflazioa %8,4koa izan ondoren, Europako Batzordeak aurreikusten du 2023an %5,6ra jaitsiko dela, hau da, udazkeneko zenbatespenen aldean ehuneko 0,5 puntuko beheranzko berrikuspena egin du orain. Urte arteko tasen jaitsiera progresiboki gertatuko litzateke urteko hiruhilekoetan, lehenengoan %8,2 eta azken hiruhilekoan %3,2 jasoko baitira. Ildo beretik, 2024rako inflazioa %2,5ekoa izango litzateke, eta urteko azken hiruhilekoan Europako Banku Zentralaren epe ertainerako helburua, %2,0, beteko litzateke. Hala ere, Europako Banku Zentralak berak aurreikusi zuen abenduan prezioak %6,3 igoko direla aurtengo urterako, eta martxoan %5,3ra jaitsi du orduko zenbatespena. Aurreikuspenen arabera, 2024ko inflazioa oraindik ere ia ehuneko puntu batean desbideratuko da helburutik, eta 2025era arte ez da lortuko %2,0 inguruko batez besteko maila.

EBZk gordailuaren eta birfinantzaketaren interes tasak %0,5 igotzeko erabakia hartu du, hurrenez hurren, %3,0 eta %3,5eraino, eta datozen urteetarako inflazio aurreikuspenak ikusita, proiektio makroekonomikoen multzoaz gain, ondorioztatzen da interes tasa errealak positibo bihurtzeko ez dela tasa-igoera askorik falta. Consensus Forecast erakundearen arabera, igoera horiek %4,0 eta %4,25 artekoak izan daitezke aurtengo azken hiruhilekoan, eta puntu horretara iritsita, moneta politika ezin hobe baten ikuspuntutik jakin beharko litzateke zenbateraino jotzen den diru politikak modu murriztailean esku hartu behar duela eskaintza arazo baten aurrean, edo, aitzitik, esku hartzea justifikatzen den prezioen arazoa eskariaren aldetiko inflazioa bihurtzeko bidean dagoelako.

Espania da, oraindik ere, pandemia hasi aurreko BPGaren maila, termino errealean, berreskuratu ez duen euroguneko herrialde bakarra, eta aurten lortuko du, susperraldiaren bultzada batekin, espero diren hazkunde tasak inguruko gainerako herrialdeetakoak baino nabarmen handiagoak izatea ahalbidetuko duena. Bereziki, turismo sektorearentzat aurreikusten den hobekuntzak, 2019an BPGaren %12,6ko pisua baitzuen, puntu bat inguruko ekarpena egin liezaioke Espainiako hazkundeari.

ESPAINIAKO EKONOMIARAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2023ko otsaila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2023				2023	2024
		I	II	III	IV		
BPG	5,5	2,6	0,3	0,7	1,1	1,2	2,3
Kontsumo pribatua	4,3	1,3	0,8	-0,3	1,4	0,8	1,8
Kontsumo publikoa	-0,9	2,0	2,4	1,5	0,3	1,6	2,0
Kapital eraketa gordina	4,3	1,7	-1,7	-0,3	4,5	1,0	3,8
- Taldeko inbertsioa	3,8	-1,4	-2,0	-0,5	7,2	0,7	4,7
- Landatutako aktiboen inbertsioa	5,6	5,0	5,5	6,0	5,3	5,5	3,3
- Eraikuntzako inbertsioa	4,2	4,0	-2,7	-1,0	2,6	0,7	3,4
Barne-eskaria	2,9	0,6	0,4	0,0	1,8	0,7	2,6
Esportazioak	14,9	6,7	1,6	2,2	3,8	3,6	4,1
Inportazioak	7,7	1,8	1,9	0,5	5,9	2,5	4,9

Iturria: Ceprede.

Joan den udazkenean 2023rako hazkunde zenbatespenen beheranzko berrikuspen handiak egin ondoren, azken hilabeteetan goranzko zuzenketa batzuk aurkeztu dira. Kasurik berriena ELGArena da, Espainiarako hazkunde igurikimenak %1,7ra goratu baititu, eta horrek lau hamarreneko hobekuntza dakar, Europako Batzordearen aurreikuspenak hobetu dituen zifra bera, kasu honetan hazkunde tasa %1,4an geratuz. Aitzitik, NDFk eta Cepredek beheranzko berrikuspenak egin dituzte, eta haien zenbatespenak %1,1era eta %1,2ra jaitsi dituzte, hurrenez hurren. Martxoan, Consensus Forecastseko panelaren aurreikuspenen batez bestekoa %1,3 da, duela hiru hilabetekeko %0,8a baino nabarmen handiagoa. Hala ere, ohartarazi behar da, aurreikuspenen hobekuntza orokorra izaten ari den arren, familien kontsumo pribatuaren osagaiaren hazkundera oraindik ere okertzen ari dela, inflazioko igurikimenak zertxobait murriztu diren arren.

Espainiako aurtengo inflaziorako ezagutarazi diren aurreikuspenak nahiko homogeenak dira: ELGAK %4,2ko hazkundera aurreikusten du, Europako Batzordeak, berriz, %4,4koa eta Consensus Forecasten batez bestekoak %4,1ekoa. Errusiak Ukraina inbaditu eta, ondorioz, prezioak igo zituenenez iazko martxoan, espero izatekoa da, hiruhileko arteko tasak azken hilabeteetan erakutsi dituzten maila egonkor samarretan mantentzen badira, martxoan KPIaren urte arteko tasa nabarmen jaitsiko dela, eta jaitsiera horren ondoren, eta hiruhilekoen arteko egonkortasun-egoera horren beraren pean, ekainean berriro ere behera egingo duela. Hala ere, azpiko inflazioaren bilakaerak kezka-zantzuren bat eman lezake datozen hilabeteetan ere.

Aipatzen ari den nazioarteko taula makroekonomikoaren narriadurak, lehen instantzian hartutako hipotesi gisa, EAEko ekonomiaren hazkundearen moteltzeko joera azaltzen du. Europako Batzordeak %1,4ko hazkundera aurreikusi du Espainiarentzat eta %0,8koa Europar Batasunarentzat. Energiaren kostuen igoerak eta ondorengo inflazio prozesuak ekonomiak geldiarazten jarraituko dute, oinarri efektuaren eta moneta politikaren ondorioz inflazio tasak motelduko badira ere.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2023ko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2023				2023	2024
	I	II	III	IV		
BPG	2,1	0,9	1,5	1,6	1,5	2,1
Azken kontsumoa	1,7	1,2	1,3	1,5	1,4	2,1
Kontsumo pribatua	1,6	0,1	1,0	1,6	1,0	2,3
Kontsumo publikoa	2,3	5,0	2,4	1,2	2,7	1,3
Kapital eraketa gordina	1,6	2,0	3,0	2,9	2,4	4,1
Barne eskariaren ekarpena	1,8	1,3	2,4	1,8	1,8	2,5
Kanpo saldoaren ekarpena	0,4	-0,3	-0,9	-0,3	-0,3	-0,4
Lehen arloa	4,0	-4,8	-3,2	5,1	0,0	1,2
Industria eta energia	1,0	0,2	2,8	0,7	1,1	1,8
Eraikuntza	1,4	1,0	0,4	-0,2	0,6	1,6
Zerbitzuak	2,6	1,4	1,4	1,9	1,8	2,3
Balio erantsi gordina	2,2	1,0	1,6	1,5	1,6	2,1
Ekoizkinen gaineko zergak	2,0	0,7	0,9	1,1	1,2	1,8
BPG nominala	6,5	5,4	4,9	4,9	5,4	5,1
BPGaren deflatoea	4,3	4,4	3,4	3,3	3,9	3,0
Lanaldi osoko lanpostuak	1,5	0,7	0,7	0,6	0,9	0,9
Landunak (BJA)	1,1	0,2	0,5	0,1	0,5	0,4
Langabezia tasa	8,3	8,5	7,8	8,3	8,2	8,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Eskariaren osagaien analisiaren ikuspegitik, merkataritzako balantzaren saldoak okerrera egin du, nazioarteko ingurunearen ahultzearen ondorioz, eta hori da ekoizpenaren hazkundera hautematen den faktorerik negatiboena. Hala, barne eskariak 1,8 puntuko ekarpena egingo lioke BPGaren hazkunderari, urte arteko tasa %1,5ean kalkulatuta baitago, eta, beraz, negatiboa izango litzateke kanpo eskariaren ekarpena (-0,3 puntu). Barne eskariaren indarra inbertsioaren


hazkunde tasa altuek eta gastu publikoaren hazkundeak azaltzen dute. Beste aldetik, familiek kontsumoan egingo duten gastuaren hazkundera BPGarena baino pixka bat txikiagoa izango da. Prezioen igoerak kontsumoan eragin negatiboa badu ere, kontsumo pribatua pandemia hasi aurretik zegoena baino askoz ere maila baxuagoan dago oraindik, eta arrakala ixten joatea espero liteke; hori horrela izan beharko litzateke, behintzat, egungo enplegu maileri eusten zaien bitartean.

Eskaintzaren ikuspegitik, industriaren sektorea da nazioarteko panoramak gehien kaltetu duena eta urtea %1,1eko urte arteko aldakuntza tasarekin amaitzea aurreikusten da, EAEko industriaren esportazio profilak eta energiaren, garraioaren eta materialen kostuek jasandako hazkundeak kaltetuta. Zerbitzuen sektorearen hazkunde erritmoa ere murriztu egingo da 2022. urtearekin alderatuta: %1,8an estimatzen da, eta amaitu berri den urtean, berriz, %4,7ra iritsi zen. Azkenik, aurreikusten da urtean zehar interes tasek gora egingo dutela eta finantzaketa baldintzak gogortzeak eragin negatiboa izango duela eraikuntzaren sektorean, eta, beraz, hazkunde tasa %0,6 ingurukoa izango litzateke, 2022an izandako %2,0ko hazkunde tasa baino nabarmen txikiagoa.


2023ko eta 2024ko aurreikuspenak (I)

Urte arteko aldakuntza tasak

Barne produktu gordina



Enplegua



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


2023. urteak positiboa izaten jarraituko du enpleguaren arloan, eta 9.000 lanpostu inguru sor daitezke, urteko batez besteko langabezia tasa %8,2an geratuko delarik. Bestalde, 2024rako aurreikusitako agertoki makroekonomikoak, EAEko ekonomiarentzat %2,1eko hazkundearekin, lan eremuan hobetzeko aurreikuspenak handitzen ditu: urteko batez besteko langabezia tasa zertxobait jaitsi daiteke, %8,0raino, enpleguaren hazkundera bederatzi hamarren haziz eta

landunen kopurua bost hamarren handituz. Horren ondorioz, gutxi gorabehera 10.000 lanpostu sortuko lirateke eta 4.000 pertsona okupatu gehiago egongo lirateke.


2022an, beherantz zuzendu ziren EAEko ekonomiaren 2023ko hazkunde aurreikuspenak. Ceprederena da aurreikuspen ezkorrena, eta %1,0tik beherako bakarra, zehazki, %0,6koa. Panelean jasotako gainerako aurreikuspenak, ordea, Laboral Kutxaren eta BBVAren %1,3tik Hispalinken %1,6ra bitartean kokatu dira. 2024ra begira, baikortasun handiagoa dago eta aurreikuspenen tarteak Cepredek aurreratzen duen %1,9k eta BBVAk aurreikusten duen %2,9k markatzen dute.

2023ko eta 2024ko aurreikuspenak (II) Urte arteko aldakuntza tasak

Aurreikuspen panela 2023



Aurreikuspen panela 2024



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (2023ko martxoa), Funcas (2023ko martxoa), BBVA (2023ko martxoa), Ceprede (2023ko otsaila), Laboral kutxa (2023ko urtarrila), Confebask (2022ko abendua) eta Hispalink (2022ko abendua).